



“Zuzendaritzan nabilen urteetan, inoiz ez dut ikusi oraingoaren moduko giroa Tabiran”

Emilio Esturo Altuna
Durangoko Kulturala • 27

Haizetara eta Uda Giro egitasmoek kultur adierazpenak kalera aterako dituzte Zornotzan eta Durangon

Kultura | Musika, antzerki, zinema eta dantza ikuskizunez beteko dute Durangaldea. • 25-26. orrialdea



Lehen lerroan

Suteak, istripuak, erreskateak, bilaketak... Egoerarik zailenetan irtenbideak aurkitzeko prestatuta daude suhiltzaileak. Iker Mendizabal durangarra hasiberria da. Rober Mendibil, ostera, beteranoa. Iurretako parkean bildu ditu ANBOTOK

• 2-3. orrialdea



AMOREBIETA • ETXANO

haizetara 2018

EKAINA 22, 23, 24

XIII FANFARREN, BANDEN ETA KALE MUSIKARIEN NAZIOARTEKO LEHIAKETA



DESMADRE ORKESTA
(Buenos Aires, Argentina)
PASTORS OF MUPPETS
(Saint-Paul-Les-Dax, Frantzia)
NEW YOR BRASS BAND
(York, UK)
TINTO BRASS STREET BAND
(Ragusa, Italia)
OLD DIXIELAND BAND
(Ciudad Real)
MIWA E I SUOI COMPONENTI
(Grosseto, Italia)
SIDRAL BRASS BAND
(Catalunya)
101 BRASS BAND
(Tunisi)
TRAPERISTAK
(Euskadi)

Lehiatik Kanpo
ACCOUSTEL GANG (Frantzia)
KITTU (Amorebieta Etxano)

JAIK!

Atxondo

Berriz



Iker Mendizabal
Atutxa
Suhiltzailea
Durango | 1989

Roberto Mendibil
Arondo
Suhiltzailea
Elorrio | 1969

“Laguntasuna emateko gogoa baduzu, suhiltzailearena satisfakzio handia ematen duen lana da”

Iurretako parkean suhiltzaile hasiberria da Iker Mendizabal. Mendibilek, aldiz, 25 urteko esperientzia du ogibide honetan

DURANGO • JONE GUENETXEA

Muturreko egoerak bizitzera ohituta daude Iker Mendizabal eta Roberto Mendibil suhiltzaileak. Suteak, erreskateak, istripuak zein uriolak, laguntzeko prest izaten dira beti. Iurretako suhiltzaileen parkeko ateak zabaldu dizkiote ANBOTOrri, ogibide honen atzean dauden pertsonen bizipenak ezagutzeko.

Zelan erabaki zenuten suhiltzaile izatea?

Roberto Mendibil: Txikitatik buruan nuen gauza bat izan zen. 1993an, urte bi lanean egon eta gero, Gipuzkoan plazak irten zirela jakin nuen lagun baten bitartez, eta apuntatu egin nintzen. Sasoi hartan beste profil bat eskatzen zuten. Lehenago ikasketetan eskaera baxuagoa zen

eta behargin profila gura zuten. Ofizioei garrantzi handia ematen zieten.

Iker Mendizabal: Gaztetatik gura izan dut suhiltzaile izatea. Etxean lehengusu bat suhiltzailea da eta bestea sarjentua. Beraz, etxean ere ikusi dut, eta horrek bidea zabaldu dit. Ikasten hasi nintzen lehenengo oposaketa 2013an egin nuen. Interino moduan hasi nintzen, Basaurin.

“

Orain, teorikoaren maila oso altua da eta lehia handia dago. Fisikoki sasoiaren bazaude eta orekatua bazara, egin daitezke

Proba gogorak direla diote.

I.M.: Asko aldatu da. Lehen ofizioak eskatzen ziren. 2006an eta 2009an, berriz, supergizonen profila eskatzen zuten. Orain, teorikoaren maila oso altua da eta lehia handia dago. Fisikoki sasoiaren bazaude eta orekatua bazara, egin daitezke. Proba denak gainditu behar dira. Igerian, korrika...

R.M.: Ikasketetan asko igo da maila. Erdi mailako ikasketak eskatzen dituzte, baina ingenieritzako maila izaten da. Fisikan eta kimikan eza gutza handia izan behar duzu.

Lanean hasterakoan, zein sentsazio izan zenuten?

R.M.: Urte asko pasatu dira. Hala ere, gogoan dut hasieran gogotsu nengoela irteerak egiteko, tentsioan nengoen. Gero, esperientziagaz lasaitu egiten zara.

I.M.: Ni Basaurin hasi nintzen. Urte bi egon nintzen, interino legez. Hasieran parkean egotea eta txirrina entzuteko zain egotea gogorra da. Ez daukazu esperientziarik. Gainera, hemen denetarik egiten da. Badaude irteera errazak, baina baita konplikatukoagoak ere. Nire esperientzia oso ona izan zen. Hasieran irteera txikiak egin nituen eta gero, zailagoak. Lankideek ere asko lagundu zidaten.

Lehenago irteera konplikatua gogoratzen duzu?

I.M.: Istripu bat izan zen, Gorbeia parking batean. Jubilatuko kuadrilla bat zen. Autoa bidetik irten zen. Kamioiagaz igotzea zaila zen eta

pertsona bat barruan harrapatuta zegoen.

R.M.: Hainbeste urtean lanean arituta, estuasun asko ahaztu egiten dira. Eta eskerrak!

Roberto, irteera motak asko aldatu dira azken urteetan?

Kotxeak asko hobetu dira. Gutxiago geratzen dira barruan harrapatuta. Lehen, edozein kolpe txikigaz geratzen zen jendea harrapatuta, Durangoko herrigunean bertan. Kotxe zaharrak ez ziren hain seguruak. Orain norbait barruan harrapatuta geratzen bada, kotxetik ateratzea zailagoa da, autoak gogorragoak direlako.

Suteak dira izaten dituzuen irteerarik arriskutsuenak?

R.M.: Txarrena pertsonak arriskuan daudela ikustea da. Hildakoak badaude, gogorra da, baina bizirik daudenekin larritzen gara gehien. Behin, Arrasaten, dozena bat pertsona enpresa bateko sutean harrapatuta gelditu ziren. Eskaileragaz ateratzera joan ginen, baina txanda bakoitzean hiru hartu nitzakeen. Jendea urduritu egiten da, eta guk tentsio hori kudeatu behar dugu.

“

Su industrial entzuten dugunean erne jartzen gara denok. Zailtasunak gerta daitezkeela duzu buruan

Sustoa izan zen, baina dena ondo irten zen.

I.M.: Su industrial entzuten dugunean erne jartzen gara denok. Zailtasunak gerta daitezkeela duzu buruan. Etxeetako suteak erraza goak dira kontrolatzen, eraikinik gehienak estandarrek direlako. Enpresek, aldiz, produktu arriskutsuak izan ditzateke. Itsu-itsuan joan zaitezke.

Suhiltzaileen lana oso zabala da. Suteez eta istripuez gainera, beste inork egin ezin ditzakeen gauzak egiten dituzue.

R.M.: Araututa ez dauden gauzetan suhiltzaileek zer edo zer asmatuko dutela pentsatzen dute denek. Asiako liztorragaz ere hasi ginen. Orain Bizkaiko Foru Aldundiaren esku gelditu da hori eta guk arriskutsuak izan daitezkeen eremuetan dihardugu. Beste kasu asko ere egoten dira. Pertsona batzuk ezin dira euren etxeetatik irten, ezin dituztelako eskailerak jaitsi edo atetik ez direlako kabitzen, eta leihotik atera behar izaten ditugu. Denetarik dago.

I.M.: Sute eta istripuetan espezializatuta gaude. Baina, kasu askotan, inork erantzun ezin duen kasuetan ere geu joaten gara. Ahal duguna egiten dugu. Mendiko irteeretan ere bagabiltza Ertzaintzagaz elkar-lanean.

Irteera asko animalien erreskateak izaten dira. Traña-Matienan txahal bat erreskatatu zenuten orain aste batzuk.

I.M.: Bai, txahal bat arketa batean harrapatuta gelditu zen Traña-Matienan eta komeriak egin genituen handik onik ateratzeko.

R.M.: Hirietan gehiago, herrietan baino. Hirietan atoa deitzen dizute etxeko animaliaren bat dela-eta.

Arrisku handiko lana duzue. Hala ere, zenbat bider entzun duzue "Zondo bizi zareten"?

I.M.: Suhiltzaile sartzen denaren motibazioa lana bera da. Normalean, pertsona aktiboak gara,

“

Geu gara azkenak heltzen, baina egoera konpondu behar dugu. Ezin dugu esan "datorrela beste bat"

eta bokazioa dugu. Hemen egun batzuetan lasaia egon zaitezke, baina beste egun batzuetan egoera zailak bizi ditugu.

R.M.: Ondo bizi gara, baina momentu gogorak pasatzen dira. Denbora ere behar dugu beste gauza batzuetan pentsatzeko. Pare bat bider ikusi dut nire bizia arriskuan, eta lana uztea ere pentsatu nuen. Kasu askotan, geu gara azkenak heltzen, baina egoera konpondu behar dugu. Guk ezin dugu esan "Datorrela beste bat".

Psikologikoki prestatzen zarete egoera latz horiei aurre egiteko?

I.M.: Psikologo bategaz mintegia izan genuen eta esan zigun kontuz ibili beharra dagoela. Guk bizi ditugun egoera horiek, nahiz eta norbera ez konturatu, zauri txikiak eragiten dituzte. Horiek kudeatzen ere jakin behar da.

Arrisku handiko ogibide hau zelan bizi dute etxeok?

I.M.: Nik ez dut asko kontatzen etxean. Momentuz, pozik daude plaza atera dudalako (barrez).

R.M.: Normalean, ez dugu komentatzen. Inoiz gaia irteten bada, kontuz ibiltzeko esaten didate.

Hasiberria eta beteteranoa zarete. Talde lanak zein garrantzia dauka zuentzat?

I.M.: Hemen ikusi dut mundu guztiak duela irakasteko gogo. Beteteranoagoek esperientzia handia dute. Talde lana oso garrantzitsua da, eta goazen lekura goazela ere, elkar babestea ezinbestekoa da. Taldea ahalik eta sendoena bada, gu ere segurtasun handiagoaz ibiliko gara.

R.M.: Taldean harreman ona izatea garrantzitsua da. Taldekideengan konfiantzarik ez baduzu, galduta zaude. Zer edo zer oker bada, atzean baten batek helduko zaituela jakitea ezinbestekoa da.

Muturreko egoeretan jendeari laguntzen diozuenen, zer sentitzen duzue?

R.M.: Laguntasuna emateko gogoia baduzu, suhiltzailearena satisfakzio handia ematen duen lana da. Jende asko etorri izan zaigu parkera egindako lana eskertzer.

I.M.: Igorren neska batek istripu

“

Bizi ditugun egoerek, nahiz eta norbera ez konturatu, zauri txikiak eragiten dituzte

larria izan zuen eta ateratzera joan ginen. Bere ama etorri, eta bere alaba ospitalera bisitatzera joateko eskatu zigun. Joan ginen, eta neska animatu eta aulkitik zutuntzen ikustea pozgarria izan zen. Errehabilitazioa amaitzen duenean parkera bisitan etorriko zaigula esan zigun. Lehengoan Markinako parkera joan nintzen eta istripua izan zuen pertsona bat eskerrak ematera etorri zen.



ARGAZKIAK: BIZKAIKO SUHILTZAILEAK





Txingarretan egiten ditu jakiak Arginzonizek, hori du bereizgarri.



Atxa, martitzenean, saria jasotzeko uanean.

Azurmendi munduko jatetxerik jasangarriena izendatu dute, eta Etxebarri, munduko hamargarren onena

Durungaldeko sukaldariak protagonismo handia eduki dute The World's 50 Best Restaurants ekitaldian; adituek berriro ere goraiatu dituzte Atxa eta Arginzoniz

DURANGALDEA • J.G. / M.O.

The World's 50 Best Restaurants galan Durungaldeko sukaldariak protagonismo handia izan dute. Eneko Atxa zornotzarrak Larrabetzun duen Azurmendi jatetxeak sari bikoitza jaso du: munduko jatetxerik jasangarriena saria

eta 43. postua 50 jatetxerik onenen zerrendan. Bittor Arginzonizek Axpen (Atxondo) duen Etxebarri jatetxea hamar onenen artean sailkatu da. Italiako Osteria Franciscana izendatu dute munduko onena.

Ez da adituek Arginzonizen eta Atxaren jatetxeak goraiatzaren di-

Zornotzarrak lau Michelin izar ditu, hiru Azurmendi jatetxeagaz eta bat Eneko jatetxeagaz

tuzten lehen aldia. Esaterako, Opinionated About Dining (OAD) gidak hurrenez hurren Europako hirugarren eta bosgarren onenak direla plazaratu zuen apirilean. Gainera, zornotzarrak lau Michelin izar ditu, hiru Azurmendi jatetxeagaz eta bestea urtebete duen Eneko jatetxeagaz. Atxondarrak ere badu izar bat –Durungaldean, Boroa jatetxeare ere eman zioten izarra–. Atxak Bilboko Euskalduna jauregi-

ko sukaldearen ardura ere hartu du orain pare bat aste.

Bilbon, lehenengoz

Munduko jatetxerik onenak auke-ratzeko gala Bilbon egin dute, lehenengoz. Aipagarria da astelehen

Etxebarri jatetxean afaldu zuten sukaldari ospetsuek, euskal gastronomia ezagutzeko

gaugez Etxebarri jatetxean afaldu zutela sukaldari ospetsuek, euskal gastronomia ezagutzeko asmoz.

Iñaki Lopez telebista aurkezlearen ezkontzako argazkilari lanak Julen Uribe egin ditu

Maiatzaren 25ean ezkondu zen Lopez, Bilboko udaletxean, eta Uribe betikotu zuen unea

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Iñaki Lopez La Sexta kateko aurkezlea maiatzaren 25ean ezkondu zen, Bilboko udaletxean, eta egun esanguratsu horretako argazkiak Durungaldeko argazkilari batek atera zizkion bikote ezkonberriari: Julen Uribe. Elkarregaz ere argazki bat atera zuten Lopezek eta Julen Uribe. Gero, Gaztelugatxe inguruetan ere egin zuten argazki saioa. Uribe pozik agertu da telebistako

"Iñaki pertsona oso atsegina eta hurrekoa da", nabarmendu du Julen Uribe

aurkezleagaz lan egin duelako. "Iñaki pertsona oso atsegina eta hurrekoa da", nabarmendu du. Euren arteko harremana ez da oraingoa, orain 25 urte ezagutu baituzten

elkar Telebilbaon, Lopezek ibilbide profesionalari ekin zionean.

Izan ere, Julen Uribe ere ibilbide oparoa du: Aspe pilota enpresako argazkilari, jazzaldietan, publizitate arloan... Gainera, Etxe musikariaren, Mikel Goñi eta Iñaki Larrinaga pilotarien, Sabino Angoitia eta Javi Rekalde ziklisten, Javi Conde txapeldun paraolimpikoaren eta Oskar Astarloa errugbilariaren ezkontzetan egin du lan, adibidez.



Iñaki Lopez eta Julen Uribe, Bilboko udaletxean, hilaren 25eko ezkontza egunean.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko ekainaren 22a
16. urtea - 726. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga, Nora Madariaga Bizkaia
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Zaldibarko Hamaikakoa osatzen duten lagunak, joan zen barikuko ekitaldian. Jon Agirre.

Euskaraldia babestuko duen Hamaikakoa aurkeztu dute Zaldibarren, eta dinamika indartzen doa herririk herri

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa egingo da Euskal Herrian, Euskaraldia deiturikoa

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa egingo da Euskal Herrian, Euskaraldia deiturikoa. Herritar batzuek euskara hutsean bizitzeko konpromisoa hartuko dute, eta, beste aldetik, euskaraz berba egiteko zailtasuna duten hainbatek entzuteko ardua hartuko dute. *Ahobizi* izango dira lehenak, eta *Belarriprest* bigarrenak. Egitasmo hori herririk herri aurkezten dabilta, eta pixkanaka badoa indarra hartzen. Joan zen barikuan, esaterako, ekitaldia egin zuten Zaldibarren,

eta dinamikaren babesle izango diren Hamaikakoa aurkeztu zuten. Hauek dira: Pepe Leon, Mirari Urizar, Nieves Maiztegi, Gaizka Za-

Zornotzako jaietan, marmitakoaren egunean, saio praktikoa egingo dutela iragarri zuten

barte, Olga Gozalo, Aimar Azagirre, Blanca Onaindia, Martzel Elorriaga, Maria Tinoco, Arkaitz Padilla eta

Yenni Grajales. Aparte, egitasmoa antolatzen dabilzanak agertu ziren jendaurrera. Ekitaldian Aitor Lopez Amankomunazgoko presidente eta herriko zinegotziak ere parte hartu zuten.

Zornotzan, pregoi ibiltarian

Zornotzan ere barikuan zabaldu zuten Euskaraldiaren mezua. Era berezian egin ere: pregoi ibiltari batez, musika eta guzti. Herriko jaietan, marmitakoaren egunean, saio praktikoa egingo dutela iragarri zuten bertan. "Egun horretan hiru postu jarriko ditugu

eta jendeari egun batez *Ahobizi* edo *Belarriprest* izateko aukera emango

"Euskararen erabilera aktibatze aukera asko" ikusten dituzte Etorriko kideek

diogu", azaldu du Rafa Ugalde udaleko euskara teknikariak.

Durangon, Asier Lafuentek Aguraingo (Araba) 75 ordu euskaraz esperimentziaren berri eman zuten mar-

titzenean. Berrizen, bestalde, joan zen zapatuan eman zuten Euskaraldiaren berri, eskolako jaialdian.

Elorrioren, gaur

Elorrioren gaur egingo dute aurkezpena, plazan, 19:30ean. "Herriko lehen *Ahobizi* eta *Belarriprest*en berri emango dugu, eta sorpresaren bat ere izango da tartean. Gure lantaldea talde irekia da, eta zabal-zabalik dago edonork parte hartu gura badu", azaldu dute antolatzaileek. "Euskararen erabilera aktibatze aukera asko" ikusten dituzte Etorriko kideek.



Zornotzan kalerik kale ibili ziren, batukada batez.



Berrizen, Learreta-Markina ikastetxean babesa erakutsi diote Euskaraldiari.



Amaia del Amo eta Unai Valle, joan zen egunean Goienkalen sinadurak batzeko ipinitako mahaian.

“Etxeak ez dituzte biztanleei begira egingo, baizik eta trenaren lurperatzearen gastua estaltzeko asmoz”

Trenbide zaharreko lurretan proiektatu dutenari buruzko informazioa eskatu dute Erabaki plataformakoek; gutun bat bidali dute ETSra, eta alkateagaz batzartu gura dute

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Azken asteetan zeresana eman duen Erabaki plataformako kide dira Amaia del Amo Castro eta Unai Valle Sarasketa. Trenbide zaharreko lurretan egingo dena herritarren artean erabakitzea gura dute, eta, horregatik, galdeketa bat eskatu diote udalari. Sinadurak batzen dabilta eskaera era ofizialean egiteko.

Sinadurak batzen zabilzate kalean, eta hainbat komertziotan ere bada-go sinatzeko aukera. Ba al dakizue zelan doan bilketa?

Unai Valle: Ez dugu oraindik sinaduren kopuru zehatzik, baina ondo doala uste dugu. Hori bai, indarra eman gura diogu, jendeak laguntzeko prest dagoela esan baitigu. Uneotan hogeit bat lekutan sinatu daiteke, eta gure sare sozialetan dago zerrenda. Denboragaz handitzen doa zerrenda hori. Jendeak kontsultatua izateko gogoia duela ikusi dugu.

Trenbide zaharreko lurretan egingo den proiektuaren inguruko informazioa gura duzuela da zuen eskarrietako bat.

Amaia del Amo: Informazio kontraesankorrek daude. 2006ko arau subsidiarioetan biribilgune bat ager-

tzen da, errepide bigaz. 2010eko mugikortasun planean, berriz, errepide bakarra. Gero, gobernu taldeak prentsan esan zuen arbola-di bat doala ingurune horretan.

U.V.: Guk geuk ere lur horretan gertatuko dena ulertzeko arazoak genituela konturatu ginen biltzen hasi ginenean. Inkognita eta sekretismo handiak daude: ez dizute in-

“ Ez gabilta esaten baietz edo ezetz etxe-dorreei; infomazioa gura dugu, eta gero kontsultatuak izatea ”

formaziorik ematen, planetatik ondorioak atera behar izan ditugu...

Udalaren eta ETSren 2006ko proiektua -554 etxe jasotzen ditu- gaur egungo beharrianetara egokitzen diren ala ez zalantza duzuela adierazi duzue oharretan. Zergatik?

A.A.: Krisiaren aurretik diseinatutako proiektu bat da. Zertara datorren? Trenaren lurperatzearen kostua estali behar zenez, ETSk lur horietan etxeak eraikitzea erabaki zuen. Higiezinen burbuilaren

sasoiko diseinu bat da. Etxeak ez dituzte egingo biztanleei begira, baizik eta trenaren lurperatzearen gastua estaltzeko asmoz. Etxe horiek salduko al dira? Jende guztiak hori gura al du? Akaso gaia birplanteatu daiteke, aukera gehiago egon daitezke. Erabaki dezagun.

U.V.: Plataforma osatzen dugunon artean ere ideia anitzak daude. Ez gabilta esaten baietz edo ezetz etxe-dorreei; informazioa gura dugu, eta gero kontsultatuak izatea. Beharrezkoa al da? Gaur egun zenbat etxe huts daude Durangon? Lau urterik behingo fase elektoralen gainera, proiektu batzuk herritarrek erabaki behar dituztela uste dugu.

Ukaezina da lur eremuaren tamaina garrantzitsua dela herriarentzat. 60.000 metro karratu inguru ditu.

U.V.: Urbanizazio eta mugikortasun ikuspegitik Durangok duen egitasmorik handiena da. Alde Zahararen besteko eremua da. Zelako herri eredia gura dugun erabakitzen utzi behar digute. Dorreetatik harago doa gaia. Zergatik ez dugu bestelako Durango bat garatzen? Nagusiekin eta mugikortasun arazoak dituztenekin atsegina izango dena, adibidez.

A.A.: Durangon libre geratzen zai-

gun azken lur eremua da. Durangoren etorkizunaren parte izan gura dugu, bere garapen urbanistikoaren agintea hartu gura dugu. Munduko Osasun Erakundeak aholkatzen du herritar bakoitzarentzat 10 eta 12 metro karratu berdegune egon behar direla herrietan, eta Durangon 8 ditugu.

Orain aste batzuk aurkeztu zenuten plataformak, eta harritu egin ninduen bertara agertu zen jende kopuruak. Zelan zabilzate antolatzen? Zer asmo duzue hurrengo aste eta hila-beteetarako?

U.V.: Laguntzaile guztiakin batera lan taldeak osatu ditugu sinadurak batzeko, eta uda ostean ere kontzientziazioagaz jarraituko dugu. Gainera, alkateagaz batzartzeko eskaera tramitatzen gabilta, eta ETSra ere gutun bat bidali dugu, informazioa exijitzeko.

Zenbat sinadura beharko dituzue galdeketa egitea eskatzeko? Zelan aurreikusten duzue prozesu hori?

U.V.: Erroldaren %10en sinadurak beharko ditugu, baina, badaezpada, %15en bila joango gara. Behin hori lortuta, mozioa geuk sartu ahalko dugu udaletxean, Partehartze ordenantza berriak horretarako aukera emango digulako. Udazkenerako egin gura dugu. Lorpen handi bat izan daiteke kontsulta bat egitea. Gero, proiektuaz informatu eta galdetu egin beharko digute; ordenantzak hilabete batzuetako epea ezartzen du. Galdeketa baietz irteten bada, demokratikoki onartuko dugu. Ezezkoa bada, herritarren beharrianetara ezagutzeko pausoak eman beharko ditugu udalak.

Lekukoei esker, gizon bat indarkeria matxistagatik auzipetu dute

DURANGO • M.O.

Lekukoen inplikazioari esker, gizon bat indarkeria matxistagatik auzipetu dute Durangon. Zapatu arratsaldean izan zen eraso, 17:20 inguruan, Urkiola kalean. Neskak ez zuen salaketarik jarri, baina lekuko

Testigantzari eskerrak, Ertzaintzak ofizioz zabaldu zuen gizonaren aurkako prozedura

testigantzei esker, Ertzaintzak ofizioz zabaldu zuen gizonaren aurkako prozedura. Ustezko erasotzailea neskaren bikotekidea da, udalak informatu duenez.

Udalak indarkeria matxistaren aurkako protokoloa aktibatzen du, eta babesa eta laguntza eskaini dizkio neskari. Plataforma Feministak atzorako deitutako elkarretaratzean parte hartzera dei egin zuen gainera.



Plataformako kideen protesta.

Sanchezen erabakia ezagututa, A-8 autobidea ere doakoa izatea eskatu dute

DURANGO • M.O.

Kontzesioak amaitzen diren autobideetan bidesariak kenduko dituela iragarri du Pedro Sanchezen gobernu berriak. Horren aurrean, Bizkaiko eta Gipuzkoako autobidea ordainpekoa izaten segitzen duela salatu du A-8 Peajerik Ez plataformak.

Aldundi bien jarreraren aurka agertu da plataformak. Izan ere, bere arabera, autobideko kontzesioa 2003an amaitu zen, eta gobernuak aldundiei eskumena pasatzean, hauek kobratzen jarraitzea erabaki zuten. "A-8ko bidesariek doakoak izan behar lukete 2003az geroztik". Uztailaren 7an auto ilara egingo dute Ermuatik Bilboraino.



STOCKA LIKIDATZEN ARI GARA Nissan Gaurisan

9.000€*
arteko
BEHERAPENA
Crossover-etan

EKAINAREN 30ERA ARTE

**BIZKOR, HEGAN
EGITEN DUTE ETA!**



GAURSA

Arriandi Auzoa, 12 48215 - Iurreta. Bizkaia. Tel: 946 205 000

www.gaurisa.com

Gehieneko beherapena Nissan X-trail 1.6DCI 130CV 4x4 TEKNA bat erosten duten partikularrentzat, baldin eta eroslearen izenean dagoen NISSAN auto bat ematen badute, eta RCI Banque SÄren (Espainiako Sukurtsala) Magic Plan 3D-rekin finantzatzen badute. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa: 7000€. Gutxieneko egonaldia: 24 hilabete. Promozio-beherapenak barne. Eskaintza hau bateraezina da beste kanpaina batzuekin, eta 2018/06/30era arte egongo da baliagarri Nissan Gaurisaren instalazioetan. Informazio gehiagorako, kontsultatu www.gaurisa.com.

Durangoko auzoak astean bi egun gehiagotan garbituko dituzte, kontratu berria ezartzean

Zerbitzu berria martxan jartzean herriko periferiako auzoak astean bost bider garbituko dituzte, orain arte hirutan izan bada ere. Erdigunea zazpi bider garbitzen dute, eta alde hori salatu izan dute auzoetako bizilagunek sarritan



Larruzea, Irigoras eta Rios, atzo emandako prentsurrekoan.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Kale garbiketarako eta hondakinen bilketarako kontratua berritzea onartu zuen udalak maiatzeko osoko bilkuran, eta hile batzuk barru martxan egongo diren nobedadeen berri eman zuen atzo. Aipagarria da periferietako auzoak astean bi egun gehiagotan garbituko dituztela. Bost bider, guztira. Orain arte hirutan garbitzen zuten. Erdigunea zazpi bider garbitzen dute, eta auzoetakoek sarritan salatu dute alde

hori. Gainera, eskolen eta erreken garbiketa indartuko da, eta arratsaldeko zerbitzua ere egongo da.

Hondakinen bilketari dagokionez, organikoaren zerbitzua

Hondakinen bilketari dagokionez, organikoaren zerbitzua izango da nobedade nagusia

izango da nobedade nagusia, birziklapenean eragingo duena. Aitor Larruzea teknikariaren arabera, uneotan %42ko birziklapen tasa dutela kalkulatu dute, eta organikoagaz handitzea espero dute. 2020an %60ra heltzea dute helburu. Gainera, datozen urteetan 500 kontainer berritzea aurreikusi dute, lurpekoak diren 42ak ere tartean.

Aitziber Irigoras alkateak organikoaren bilketan parte hartzera animatu ditu herritarrak. Bestalde,

Pilar Rios alkateordeak nabarmendu du proiektua 3.200 etxetan egin-

Datozen urteetan 500 kontainer berritzea aurreikusi dute, lurpekoak diren 42ak ere

dako inkesta parte-hartzaile baten ondorioz garatu dela.

Artisau eta sortzaileen bigarren azoka egingo dute asteburuan Elorrioren

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eixu elkarteak artisau eta sortzaileen bigarren azoka antolatuko du zapatarako. 10:30etik 14:30era bitartean, Urarka kalean 22 artisau eta sortzaileren

22 artisau eta sortzaile, eta ekoizle bi batuko dira Eixuk zapatarako antolatu duen azokan

lanak aurkituko dituzte Elorriora bertaratzen direnek. Horrez gain, ekoizle biren taloak eta garagardoa dastatzeko aukera ere egongo da.

Bestalde, umeentzat taile-rrak eta DJa ere egongo dira.

Aldundiak 22.800 euro emango ditu Garaiko pilotalekuko teilatua konpontzeko

GARAI • MARKEL ONAINDIA

2018ko proiekturik garrantzitsuenetako bat izango da Garain pilotalekuaren teilatua konpontzekoa. Aurrekontuko inbertsiorik handiena jasoko du, 86.000 eurotan lizitatuta. Bada, Aldundiari diru-laguntza eskatu dio udalak, eta bueltan 22.800 euro hartuko ditu.

Lizitazioa martxan dago, eta astelehenera arteko epea dute enpresek proposamenak aurkezteko.

Mallabiko automozio enpresako Gorka Oregi saritu dute Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan

Institutuko ikasle ohiak 27 urte ditu eta MEC-Group enpresako ingeniari eta plangintza arduraduna da

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak heziketa zikloen ikasurte amaierako sariak banatu zituen joan zen astean, eta Gorka

“Egunero ideia berriekin gabilta, erreminta berriak diseinatzen. Piezak egiteko makinak egiten ere bagabiltza orain. Automozioaren

sektorea lehiakorra da eta ideia berriak inportanteak dira. Jende asko arlo horretara dedikatzen da eta bereizgarriak izaten saiatzen

gara hainbat alorretan: piezak ondo egiten, besteek baino merkeago egiten, bezeroekiko harremanetan...”, adierazi du.

"Egunero ideia berriekin gabilta, erreminta berriak diseinatzen", dio elorriar gazteak

Oregi Errasti (Elorrio, 1991) izan zen sarituetako bat. Ibilbide aipagarria duten ikasle ohien atalean jaso zuen saria. 27 urte gaz, Institutuko ikasle ohi Mallabiko MEC-GROUP automozio enpresako ingeniari eta plangintza arduraduna da.



Gorka Oregi —eskumatik bigarrena— joan zen asteko sari banaketa ekitaldian.

Atxondoko Udalak eskolan jantokia jartzeko eskatu dio Hezkuntza Sailari

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Kalitatezko elikadura osasuntsua umeentzat, bertakoa eta sasoiko produktuekin. Horixe aldarrikatzen dabilta azken urteotan Atxondon. Martxoan, eskolan sukaldea jartzeko eskatu zioten guraso elkarte eta Berton Bertokoako kideek Hezkuntza Sailari. Orain, udalak bat egin du eskari horregaz.

Gainera, jantokia jartzera-koan dirua faltako balitz udalak jarriko lukeela jakitera eman zuten lehengo asteko bilkuran.

Matienako auzotar talde batek bost urte daramatza beharrean San Juan jaiaren magia berreskuratzeko

Urteetan itzalita egon den sua berriz piztea erabaki eta antolatzen hasi zirenetik, bost aldiz antolatu dute jaialdia. Modu xumean hasi zena hazi egin da eta azken urteetan 500 lagun biltzera iritsi dira Traña-Matienako suaren bueltan

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Galdutako magia berreskuratzeko lanean dabil abadiñar talde bat azken urteetan. San Juan suaren falta sumatuta, Traña-Matienako hainbat belaunalditako auzotarrek euren kabuz antolatu eta tradizioa berreskuratzeari ekin zioten. "Txikitako oroitzapen asko genituela konturatu ginen taldean berba egiterakoan, eta horrela animatu

Suarekin batera, sorpresa bat egin ohi dute; iaz, adibidez, Mikel Laboaren 'Txoria Txori' abestu zuten

ginen", azaldu du Kati Aranzabalek. Orain bost urte, 2013an, ostera isiotu zuten sua Traña Matienan. Ordutik dabil lanean Edurne Aparicio ere. Jai antolatzeko taldeko kide bi baino ez dira, baina familia osoak daude lan taldean beharrean eta jaiagaz disfrutatzen. "Belaunaldi guztietako jendea dugu hemen, ume, gazte zein nagusi", esan du Apariciok. Aniztasun horrek jai indartzen duela azpimarratu dute. "Urtero sorpresa bat egin ohi dugu. Aurtengoa ere berezia izango dela aurreratu dezakegu", gaineratu du.



Traña-Matienako San Juan festako sustatzaileetako batzuk.

Iaz, adibidez, Mikel Laboaren *Txoria Txori* abestuz agurtu zuten sua.

Festa berreskuratzeko modu xumean hasi ziren beharrean, "bakoitzak ahal zuena ekarrita", baina inoiz 500 bat lagun batzera ere iritsi zirela diote, pozik. Jaialdia autogestionatu ahal izateko, auzoko komertzioetakoek emandako produktuekin eginiko otzara bat

Eskualde osoan tradiziozko hitzordua da San Juan sua. Agendan daude egitarauak

zozkatzen dute. "Guztia familian geratzen dela esan daiteke", azaldu dute sustatzaileek.

Abadiñon ez ezik, Euskal Herri osoan ere tradizio handiko jaiak dira Sanjuanak. Durangaldean, hainbat egitarau antolatu dituzte herri eta auzoetan. Agendaren atalean agertzen dira egitarau horietako asko.

Mikel Garaizabal izango da Abadiñoko jeltzaleen alkategaia 2019ko udal hauteskundeetarako

Berarengan jarri duten konfiantza "erantzukizunez" eta "gogo eta ilusio handiz" hartu duela dio Garaizabalek

ABADIÑO • MARCEL ONAINDIA

2019an izango dira hurrengo udal hauteskundeak, eta Abadiñoko EAJk badu dagoeneko aukeratuta bere alkategaia: Mikel Garaizabal

Garaizabal 23 urte gaz hasi zen politika munduan, eta zinegotzi ere izana da

Iturriagaetxebarria. Jeltzaleek prentsa ohar bidez azaldu dute Garaizabalena izan dela zerrendaburu izateko aurkeztutako proposamen bakarra, eta Abadiñoko Uri Buru Batzarrek aho batez onartu duela.

EAJk berarengan jarritako konfiantza eskertu du Garaizabalek. "Apaltasun osoz egiten dut, nigan jarri den konfiantza hori erantzukizunez hartu dut eta baita gogo eta ilusio handiz ere. Abadiñoko herria, bere auzoak eta herritarren bizimodua hobetzea dut xede".

Gaur egun, presidentea

Garaizabalek 42 urte ditu eta Abadiñoko Uri Buru Batzarreko presidentea da gaur egun. 23 urte gaz hasi zen politika munduan, eta zinegotzi ere izana da. Horrez gainera, herriko hainbat taldetan parte hartzen du: Traña-Matienako guraso elkartearen, Caritasen eta Barrizten kultur elkartearen, adibidez. Bestalde, Pierburg enpresan teknikari lez egiten du lan.



Mikel Garaizabal zinegotzi ere izana da aurretik.

Diru-laguntza gehiago eta handiagoak euskara ikasteagatik

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Aurtengo diru-laguntzei hasierako onarpena eman zieten azken udalbatzarrean, eta euskara ikasteko diru-laguntzak handitu egin dituzte. Ordenantzan

Barnetegian ikasteko zein beste hizkuntza bat ikasteko laguntzak ere egongo dira aurtan

jasotzen diren eskakizunak betez gero, matrikularen %80 ordaintzeko laguntza jaso ahal da. Orain arte matrikularen %50 ordaintzen zen. Gainera, Barnetegietan lehenengoz ikasteagatik ere egongo da laguntza: matrikularen %30. Orain arte laguntzak euskarara mugatzen ziren, baina orain beste hizkuntza bat ikasteagatik ere emango dituzte. Alegazioen epea amaitzean eta udalbatzarrek behin betiko onarpena ematean egongo dira eskuragarri laguntzok.

Baserrietan bizileku berriak zelan egin azaltzeko batzarra dago martitzenean

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Baserrietan etxebizitza berriak egin ahal izateko aldaketa puntual bat egingo du udalak arau subsidiarioetan. Baserri munduko gaur egungo errealitatera egokitzea da helburua. Izan ere, baserrietan bizi diren familieta-ko kideek handik irten beharra izaten dute, nahiz eta espazioa badagoen etxebizitza berriak egin ahal izateko: sasoi bateko kortetan, esaterako.

Beti ere baldintza batzuk bete beharko dira bizilekuak

Baldintza batzuk betez gero, etxebizitza berriak egin ahal izango dira Mañariko baserrietan

egiteko. Hori guztia azaltzeko, udalak herri batzar bat egingo du datorren martitzenean, 18:30ean, udalbatzar aretoan. Uztaileko udalbatzarrean onartuko dute aldaketa eta, ostean, alegazioetarako epea hasiko da.



San Pedro jaiak ospatuko dituzte Eitzagan, ekainaren 29tik uztailaren 1era

ZALDIBAR • A.M.

Adin eta gustu guztietarako egitaraua antolatu dute Eitzaga auzoan datorren astean San Pedro jaiak ospatzeko. Bari-kuan, hilak 29, nagusientzako bazkariagaz abiatuko dute hiru eguneko egitaraua. Ostein, haurrentzako marrazki eta idazlan lehiaketa eta txokolata-egongo dira. Bertan indarrak batu ostean, Donien Atxa altxatuko dute, eta, jarraian, pintxo potean jarraituko dituzte jaiak. Zapaturako eta domekarako askotariko ekimenak egongo dira: bolo txapelketa, Txindurri dantza taldearen ekitaldia eta asto probak, besteak beste. Uztailaren 1eko errifa zozketagaz emango diete amaiera jaiak.

Antzerki udalekuak antolatu dituzte Berrizen herriko gaztetxoentzat

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2012az geroztik Karrika antzerki taldeko kideek eta Pagotxa aisialdikoek herriko gaztetxoentzat antzerki udalekuak antolatzen dituzte Berrizen.

Datorren astelehenetik zaptura bitartean, 5 urtetik 12 urtera arteko gazteek antzerkigintzara hurbiltzeko aukera izango dute. "Berrizen eskaintza zabala daukagu urtean zehar, eta gazteak eskaintza horretara hurbiltzea gura dugu", adierazi du Maite Lopez antolatzaileak.

5 urtetik 12 urtera arteko gazte berriztarrentzat antzerki udalekuak antolatu dituzte

Astelehenetik barikura bitartean izango dira udalekuak, 10:00etatik 13:00etara. Zapatuan, berriz, egun osoan egongo dira antzerki udalekuetan, eta ikasitakoagaz emanaldia egingo dute arratsaldean.

Bihar zabaldu gura dute 700 lagunentzako edukiera izango duen aquaparka Iurretan

Ur parkea bihar irekiko dute, 15:00etan. Olatu estatiko bat eta 12 metroko txirrista bi ditu aquaparkak. Iurretarentzako egun osoko sarrerak 12 euro balio ditu; gainontzekoek 14 euro ordaindu beharko dituzte

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Bihar, 15:00etan, zabaldu gura dute Iurretako aquaparka. Hilabete eskas da lanak hasi zirela eta, beharrezko baimenak lortu ondoren, martxan da 4.300 metro koadro dituen azpiegitura berria. Besteak beste, olatu estatiko bat eta 14 metroko txirrista bi ditu aquaparkak, eta 11:00etatik 19:00etara bitartean

Aquaparkaren proiektua martxoan aurkeztu zuten eta maiatzaren erdian hasi zituzten lanak

egongo da zabalik bertaratu gura duenarentzat. Egun osorako sarrera bakarra egongo da. Iurretarentzat 12 euro balio ditu, eta gainontzekoek 14 euro ordaindu beharko dituzte aquaparkera sartzeko.

Proiektuaren bultzatzaileek martxoan aurkeztu zuten aquaparka eta irailean desmuntatuko dute. Martxoan azaldu zuten, z

Ibarretxe kultur etxearen alboan jarri duten aquaparkak 700 bat lagunentzako edukiera du, eta 10-15 lagun kontratatatu dituzte bertan lan egiteko. Herriarentzat proiektu "interesgarria" izan zitekeela pen-

tsatuta erabaki zuen egitasmoagaz aurrera egitea Iurretako Udalak. Horrela azaldu zuen proiektua Iñaki Totorikaguena alkateak aurkezpen egunean. "Durangalderako aisialdirako beste alternatibatzat"

ikusten du aquaparka Totorikaguena alkateak, eta uste du "Iurretako eta inguruetako bestelako zerbitzu batzuei ere onura handia ekarri ahal dietela aquaparkera etorriko direnek".



Ibarretxe kultur etxearen alboan jarri dute 4.300 metro koadro hartzen dituen aquaparka.

Zornotzako Udalak platinozko erratza jaso du hondakinen kudeaketarengatik

Madrilgo Hirigintza eta Ingurumenerako Azokan eman diote saria udalari

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Udalari hondakinen kudeaketan eta kale garbiketan egindako lana aitortu diote Madrilgo Hirigintza eta Ingurumenerako Nazioarteko Azokan. Hondakinen Kudeaketarako eta Ingurumenerako Elkarte Teknikoak antolatutako ekintzan jaso dute saria Andoni Agirrebeitia alkateak eta Hirigintza eta Jasangarritasun zinegotzi

Azken hilabeteetan udalak hainbat neurri hartu ditu hondakinak bildu eta birziklatzeko

Besteak beste, hondakin organikoak birziklatzeko edukiontzi kopurua handitu dute

Juan Maria Ugaldek. Azken hilabeteetan, udalak hainbat neurri hartu ditu hondakinak bildu eta birziklatzeko, batez ere merkataritza guneeetan. Horretarako, paperaren eta kartoiaren lurpeko edukiontzi ahoak handitu ditu, kartoiak errazago sartu ahal izateko. Hondakin organikoen edukiontzi kopurua ere handitu dute.



Andoni Agirrebeitia eta Juan Mari Ugalde, Zornotzak Madrilan izan duen postuan.

Munduko herrialde askotako janariagaz eta musikagaz gozatzeko aukera dago Otxandion

Elkarregaz taldeak kultur aniztasunaren jaialdia antolatu du domeka honetarako

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Munduko zenbait kultura eta ohiturek bat egingo dute domeka honetan Otxandion. Aniztasuna aberastasunaren sinomino dela erakutsi gura du Elkarregaz taldeak udalaren laguntzagaz antolatutako jaialdian.

Munduko hainbat jolasetan aritzeko aukera egongo da 12:00etan. Horren ostean, 13:00etarako, zenbait herrialdetako pintxo dastaketa antolatu dute. Udalak ordainduko ditu osagaiak, eta hainbat jatorritako herritarrek prestatu eta

eskainiko dituzte pintxoak udal-letxeke aterpean. Ordu berean, Otxandioko Urbiribil dultzaina

Senegal, Pakistan, Siria, Bolivia eta beste hainbat jatorritako herritarrek parte hartuko dute

taldea herriko kaleetatik ibiliko da jai giroa jartzen. Ekimen honek ere kulturen arteko lankidetzaz izango

du oinarrian, izan ere jatorri askotako otxandiarrekin batera arituko dira. Senegal, Pakistan, Maroko, Saharako herrialdea, Siria, Bolivia, Galizia... eta beste hainbat herrialdetatik etorritako otxandiarrek euren sorterriko abestiak kantatuko dituzte.

Jaialdia plazako ikuskizun batzuek amaituko dute, 19:00etan. Herritar talde bat musika erdigune izango duen ikuskizun bat prestatzen dabil. Kasu horretan ere jatorri askotako herritarrek osatutako taldea izango da.



Hainbat kulturen aberastasuna aterako dute kalera domekan.

Osasun gida

anboto

Naturopatia
PSE: 49/18

NAROPA
Naturopatia eta masaje zentrua

Masaje deskontrakturantea
Drenatze linfatikoa.
Osteopatia.
Tratamendu naturalak
Masaje metamorfikoa

San Ignazio Auzunea 1, behea. Durango
675 706 599
www.naroba.net

Optometria
PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriaren teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboak.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoportmetriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17

HOBETU
Fisioterapia & Podologia

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA
GOIATZ MURUA
Podologoa
AINHOA ELORZA
Podologoa
NEREA RODRIGUEZ
Podologoa
Kiroprodia, onikopatia, alteraziodermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



Hareek denporak!

INSTITUTUTIK PARISERA EGINDAKO BIDAIK

Durango Fray Juan Zumarra-ga institutuak 50 urte bete ditu aurten, eta zapatuan ospatu zuten gaur egungo zein iraganeko ikasle eta irakasleek. Gainera, *Heu be zantzoka* aldizkariaren ale berezi bat argitaratu dute urtemugaren harira –Urriken dago salgai–, ibilbidean egondako hainbat lagunen gogoetak eta akorduak idatzita. Argazki zaharrak ere topatu daitezke bertan,

institutuan egindako ekintzen erakusgarri direnak. Irudiotan agertzen dena da bat, 1991n frantseseko ikasleek Parisera eginiko bidaiakoa.

Institutuan urte askotan izan zen frantseseko irakasle Marilo Aldeanueva, eta beragaz batera ikasle ugarik egin zuten, urtero, Frantziako hiribururako bidaiak. Estimuz gogoratuko dituzte askok Marilo eta bidaiak haiek. **M.O.**

Sei hankako mahaia

Julian
Riios Santiago
SQ-2D



Estatikoa eta dinamikoa

2011ko maiatzaren 15ean, inork eragindako lozorrotik esnatu ginen herritarrok. Lozorroak guztiz paralizatuta eduki gintuen, eta ezin genien aurre egin aus-teritateari eta lortzea hainbeste kostatu zitzaizkigun eskubide eta libertateen murrizketari.

Politikak anestesiatuta eduki du jendea, eta ez dio utzi neurri antisozialei eta neoliberaleari aurre egiten. 2011ko abuztuaren 23an, maltzurkeriaz eta azpikeriaz, PPK eta PSOEek konstituzio sakrosantua aldatu zuten korrika eta presaka, “zor publikoa izan zedin ordaindu beharreko lehenengo gastua, Estatuaren beste ezein gasturen aurretik aurrekontu orokorretan, zuzenketa edo aldatetarako aukerarik eman gabe”.

Urteak igaro dira eta herritarrek antolatuta egin dira. Mugimendu eragilea zena alderdi politiko bihurtu da politika basati hauei aurre egiteko eta beste eredu bat posible dela erakusteko.

2015ean udal hauteskundeak izan ziren eta udal askotan aldaketa etorri zen. Horrek erakutsi zuen jende xumea aparte-ko gauzak egiteko gai dela.

Durungaldean Amankomunazgoaren kudeaketa aldatzea lortu genuen. Eredu serio eta eraginkorra dugu harrezkero, eta denok hartzen dugu parte.

Mugimendu sozialak ez-tanda egin duela ikusi dugu aurten: Martxoaren 8ko greba historikoa, pentsiodunen mobilizazioak eta abar. Durangon ere zenbait plataforma sozial, estatiko izateari utzita, dinamiko bihurtu dira. Parte hartzea, ahalduntzea eta gardentasuna ziren gure helburuak kandidatura moduan aurkeztu ginenean, eta helburu horiek finkatu egin dira Durangon. Jarrai dezagun.

*Erredakzioan itzulia

Durungaldea asteen

Paella txapelketa eta txistor-jana Durango Muruetatorre auzoko jaietan

Durango I Asteburuan, Durangon, Muruetatorre auzoko jaiak ospatuko dituzte. Zapatuan txupinazioa jaurtita emango diete hasiera jaiei, 12:00etan, eta domeka iluntzera bitartean hainbat ekintza egongo dira. Zapatuan, esaterako, paella txapelketa egongo da, eta baita txistor-jana ere.

Domekan, berriz, herri kirolak, puzgarriak, bits jaia, txokolata eta mus txapelketa egongo dira.

Mallabiko Goita auzoan San Juan jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Mallabia I Asteburuan San Juan jaiak ospatuko dituzte Mallabiko Goita auzoan. Bola-jokoagaz emango diete hasiera jaiei, 17:30ean. Ondoren, Donien Atxa altxatu, eta tortilla txapelketa eta San Juan sua egongo dira. Domekan, 12:00etan, meza egongo da eta, ostean, dantzariak. Araitx eta Eider auzoko bertsolariek emango diete amaiera jaiei.

Elorrioko kanpoko igerilekuak irailaren 16ra arte egongo dira zabalik

Elorrio I Barikuaz geroztik martxan dago Elorrioko igerileku denboraldia. Kanpoko igerilekuak irailaren 16ra arte egongo dira zabalik, eta 6 hilabetetik 3 urtera arteko haurrak doan sartu ahal-ko dira.

Bestalde, igerilekuetako txirristak konpondu egin dituztela jakitera eman du Elorrioko Udalak.

ZUZENKETA: Joan zen asteko alean Bixente Aizpurua kolaboratzaileak Lauhortza atalerako idatzitako bertsoak nahastuta kaleratu zituen ANBOTOk. Barkamena eskatu gura diogu egileari, baita irakurleei ere. Hona hemen Aizpuruak idatzitako testu eta bertso zuzenak:

Eskerrik asko eta zorionak (2. zatia)

Maiatzeko artikuluari jarraituz adierazi behar gurasoei gaztaroan suertatu zitzaizen bizimodua gogorra izan arren bazekitela bizitza latz horri irriño batzuk ateratzen. Sakelari diru gutxi, baina kolkoa alaitasunez beterik zuten domeka eta herri desberdinetako jaietan, soinujoleari pezeta bat ordaindu ondoren, lehertu arte dantzan ibili ondoren denak pozik etxera.

Hainbeste urte elkarrekin pasa eta gero (62 urte) mirestekoa da elkarri dioten kariñoa eta bizipoza. Egunero, oheratzerakoan, egunean zehar egindakoaren errepaso egin eta hurrengo eguna planifikatzen dute eta otoitz eginez bukatuko dute eguna.

Ezinezkoa da beraien bizitza orrialde baten laburtzea, baina tokiak mugatzen nauenez espero dut lerro hauekin beraien nondik norakoak jakiteko lagungarria izatea. Bukatzeko bertso hauek beraien eta historia egiten jarraitzen duten anonimo guzti horien ohorez:

Baldomero eta Inaxi Matea, Bixente, laukote honi esker zabiltzate tente, aspaldia joan arren beti bijilante, gaur zuek zoriontzeko gurekin presente.	Urte askotxo dira batu zinetela, garia luze honetan ekintza mardula, zuek egindakoa ezta izan ustela, jarraitu egizue luzaro horrela.	Elkarbizitza hortan hiru seme-alaba, hauen ondorengoak beste bi iloba, ezin dugu ahaztu Errusiako lora, biontzako bihotzez gure esker ona.
---	--	---

Seme-alaba eta iloben partez gure alde egin eta egiten ari zaretzenagatik eskerrik asko, zorionak eta segi historia egiten.

Bixente Aizpurua Eguren **Irakaslea**

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, IURRETA • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Atxondoko Udal Igerilekua

Ordutegia: 11:00-20:00

SARRERA

- 4 urtera arteko umeak **debalde**
- 5-17 urte bitartekoak **3,50€**
- 18tik gorakoak **4,50€**



Euriak eragindako kalteen ondorioz, igerilekua ekainaren 22an zabalduko da. Parkatu eragozpenak

www.atxondo.eus

JAIAK!

ATXONDO
2018ko EKAINA



www.atxondo.net

*2017ko San Pedro jai
zoriontsuak opa deutsueguz!*



Atxondoko jaiak 2018**Axpeko jaiak****Ekainak 22 barikua****11:30** Meza nagusia. Ondoren Igel txapelketa. Gero, herriko jubilatuentzat luntxa.**17:00** Briska txapelketa; hasiera eta amaiera.**18:00** ESKU PILOTA PARTIDUAK. Ilunkeran saihets pintxoak salgai afari kopurako**21:00** Nagusien pilota partiduak.**22:00** Txopo jasotzea.**23:00** Rantxerak: **PURO RELAJO**. Amaitutakoan berakatz zopa eta txokolatea. Ondoren DJ BULL.**Ekainak 23, zapatua****9:00** Gazteen mendi irteera.**17:00** Mus txapelketaren hasiera.**18:00** Bizikletaz, **KRONOIGOERA**. Arratsaldean, bakailaoa pil-pil eran eta tortilla txapelketa.**HERRI AFARIA:** Parte hartu dutenek euren lagun taldeagaz frontoian afaldu ahal izango dute. Jai batzordeak ogia, postrea eta kafea jarriko ditu.**Ilunkeran** SAN JUAN SUAK .**22:30** AXPEKO ALBISTEGIA. Ondoren erromeria **LUHARTZ** taldeagaz.**Ekainak 24, domeka | SAN JUAN EGUNA****UMEEN EGUNA** Atx-azpi elkarteak antolatuta Goizean zehar baserriko tresnen erakusketa.**11:30** Meza nagusia. Atxondoko **ANDASTO** dantza taldea.**13:00** Mus txapelketaren amaiera.**13:00** GAZTEEN ESKU PILOTA PARTIDUAK**18:00** PUZGARRIAK. Tartean, UMEEN JOLASAK. Ondoren, txokolatada eder bat jaipei amaiera emateko.**Apatako jaiak****Ekainak 23 zapatua****8:30 29. Mendi Martxa.** Apatako plazan.**Ekainak 28, eguna****12:00** Umeentzako **Sormenin** tallerrak.**14:00** Jubilatuen bazkaria.**17:00** Futbito txapelketako finalak.**19:00** Txopo igoera eta pregoia. Ostean **Andasto** Dantza taldearen ikuskizuna.**21:30** **Talka** Kontzertu akustikoa.**Ekainak 29, barikua****12:00** **Stanba Banda** Umeentzako antzerki musikatua.**18:00** Tortilla eta Bakailao txapelketak.**21:00** Afari herrikoia.**Ekainak 30, zapatua | MOZORRO EGUNA****10:30etatik 14:00etara** Umeentzako Puzgarriak plazan.**14:30** Paella txapelketa eta Herri bazkaria.**17:00** Mus Txapelketa herriko tabernetan. Kittu euskal txaranga.**21:30** Kontzertua **State Alerta eta Joxpa** Erromeria.**Uztailak 1, domeka****16:00** Umeentzako Antzerkia **Buala**.**16:30** Igel Txapelketa Itziar Tabernan.**18:30** Pilota partiduak **Titin III-Beroiz Xala-Jaioren kontra****21:00** Rantxerak **Txapito Guzman eta Ibarra** Langostinuek. Ostean Txopoa bota eta brindisa.ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA BIRZIKLAGARRIAKwww.soul-cemosa.es**cemosa**

GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.L.

Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 94 623 17 17 - Faxe: 94 623 17 99**Azkonizaga****Edari banaketa**GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK
ESNEA · URA · FRESKAGARRIAKLejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

Musikak, dantzak eta albistegi bereziak osatuko dute Axpeko jaietako menua

Aurkezle bik, zuzeneko konexioen laguntzagaz eta umore tonuan, herriko zein herritik kanpoko gaurkotasuna landuko dute, aurten ere, Axpeko Albistegian. Hainbat berri kuriosu prestatu dituzte



lazko jaien hasiera Axpen.

JAIK • JOSEBA DERTEANO

Ekitaldiz betetako asteburua prestatu dute Axpen San Juan jaiak ospatzeko. Esaterako, iazko harrera onak animatuta, Axpeko Albistegiak bigarren aldia egingo du aurten. Irati Armendia eta Aitziber Iriondo aurkezleek herriko eta kanpoko albisterik kuriosoenak kontatuko dituzte frontoiko platotik, korrespontsal eta protagonista talde zabal baten laguntzagaz; beti ere, umore tonuan. Zapatuan izango da, 22:30ean.

Albistegian sakonean landuko dituzten gai batzuk aurreratu dituzte. Emakume talde batek, oporretan Benidormera joan beharrean, Benidorm Axpera ekarri eta auzoan hondartza bat egiteko asmoa du. Hori egiteko arrazoiak albistegian azal-

Kirolen atalean, kilker harrapakariak izango dira protagonista; hainbat auzotarrek teknika bereziak garatu dituzte kilkerak bilatu eta harrapatzeko

duko dituzte. Kirolen atalean, kirol berri baten berri emango dute: kilker harrapatzaileak. "Gero eta kilker gutxiago entzuten dira eta pertsona batzuek teknika bereziak garatu dituzte kilkerrok bilatu eta harrapatzeko. Albistegian kontatuko ditugu teknika horiek", dio Irati Armendiak. Beste hainbat albiste eta eguraldi iragarpena ere izango dira.

Txopoaren jasoera, gaur

Gaur hasi dituzte jaiak. 22:00etan Donien Atxa jaso dute eta, ostean, Puro Relajo rantxera taldearen eta DJ Bull-en kontzertuak hasiko dira.

Domekan, Andasto dantza taldeak saioa eskainiko du mezaren ostean eta, arratsaldean, umeen jolasak egongo dira, txokolatada eta guzti.

Mendigoikoara kronoigoera, bizikleta bereziagaz

Iaz eserlekurik bako bizikletan aritu ziren. Zelakoa izango ote da aurtengoa?



lazko lehenengo aldiak 13 parte-hartzaile izan zituen.

JAIK • J.D.

Kronoigoera bizikletan, Mendigoikoarainoko al-dapa gogorra norik arinago igo. Horixe da Axpeko jaietan iaz abiatu zuten ekimen kuriosoetako bat, eta aurten errepikatu egingo dute. Zapatuan izango da, 18:00etan. Iazko hamahiru parte-hartzaileek bizikleta bera erabili zuten, antolatzaileek eroandako bat, eta berezia zen: ez zuen eserlekurik. Beraz, zutunik bakarrik ibili zitezkeen. Aurten bizikleta aldatuko dute eta beste berezitasun bat izango du, baina ez dute egunerarte bertararte jakinaraziko.

Bakailao eta tortilla txapelketak

Bakailaoa pil-pil eran eta tortilla txapelketak dira jaietako beste ekimen jendetsu bi. Bihar arratsaldean egingo dituzte biak. Parte-hartzaileek lagun taldeagaz frontoian afaldu ahal izango dute gero. Jai batzordeak ogia, postrea eta kafea jarriko ditu. Afalosteko albistegiaren ostean, Luhartz taldearen erromeriagaz agurtuko dute eguna.

U3 Arkitektura Teknikoa
 J.A. Agirre Lekube, 10
 48291 Atxondo
 Tel.: 946 201 523 / 627 575 583
 Faxe: 946 819 061
E-mail: info@u-3.es

Eraikuntza-obra
Proiektuen kudeaketa osoa
Obra berria, birgaikuntza,
zaharberitze lanak eta legalizazioak

BURDINAK, S.L.
 EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. ATXONDO Tel.: 946 583 164 Faxe: 946 583 416

akebaso
 akebasorestaurante.com

*Jaietan ere asteburuetako menuak eskaintzen ditugu!
 Zatoz gurera, eta ondo pasa San Pedroetan!*

San Juan auzoa 16, Axpe - akebaso@akebasorestaurante.com - 94 658 20 60

Umeentzako eskaintza indartuta hasiko dituzte Apatan San Pedro jaiak, eguenean

Talka, Txapito Guzman eta Ibarrako Langostiniek, Joxpa eta State Alerta taldeek berotuko dute gau giroa



San Pedro egunaren bezperan jarriko dute Donien Atxa, plazan.

JAIK • AITZIBER BASAURI

Dena prest dute Apatan sanpedroei ondoetorria egin eta, lau egunez, kaleak jai giroz busti daitezten. San Pedro bezperan, eguenean, igoko dute Donien Atxa. Aurten, nobedade moduan, Andasto dantza taldeko dantzariak lagunduta igoko dute, gainera. Lanak amaituta, ikuskizuna eskainiko du Andasto dantza taldeak. Jai Batzordeak botako duen pregoian herriko elkarte eta eragileen lana goraiatuko dute. Jai Batzordeak modu berezian indartu gura izan du aurten umeentzako eskaintza. Hartara, Jai Batzordeko Igor Olaetxeak nabarmendu duen lez, egunero izango dute zer gozatu jaietan. Datozen egunetan, sormen tailerra, *Stanba Banda* umeentzako antzerki musikatua eta puzgarriak izango dituzte etxeko txikiak herriko jaietan. *Buala* antzerki ikuskizuna ere bai. Bestalde, musika eskaintza aurreko urteetako baino zabalagoa izango da, Olaetxeak azaldu duenez. Talka taldearen kontzertu akustikoaz gainera, Txapito Guzman eta Ibarrako Langostiniek taldearen rantxerak entzuteko aukera eskainiko dute sanpedroek. Baita Abadiñoako State Alerta taldearen doinu gogorrak entzuteko aukera ere. Horri Goxogoxo eta Joxpa plaza taldeen erromeria doinuak gehituko zaizkio.

Mozorro egunerako gaia, ura

Ura. Horixe aukeratu du mozorro egunerako gai Jai Batzordeak. "Azken uriolak gogoan ditugu oraindik, eta ea herritarrak mozorrotzera animatu eta jai giroan sartzen diren", dio Olaetxeak. Zapatuan izango da hori. Paella txapelketa eta herri bazkaria ere zapatuan izango dira. 200 bat lagun biltzen dira urtero. Hala ere, tortilla eta bakailao txapelketak izaten dira herritarrik gehien batzen dituzten ekitaldiak. 400 bat lagun elkartzen dira, eta frontoia txiki geratzen da. Ume, gazte zein helduek aurten ere ez diote hitzorduari hutsik egingo.

Aurten, nobedade moduan, Andasto dantza taldeko dantzariak lagunduta igoko dute Donien Atxa; eguenean izango da, 19:00etan

Titin pilotari mitikoa izango da kirol ikuskizunetako izarra

Errioxarragaz batera profesionalen lehen mailan ibilitako Xala eta Beroiz ere etorriko dira Apatako jaietara; Oier Jaio atxondarrak osatuko du pilotarien laukotea

KIROLA • MARKEL ONAINDIA

Azken hamarkadetako pilota munduko protagonista handi bat izan da Augusto Ibañez errioxarra, Titin III.a lez ezaguna. Pilotalekuetan ikuskizun itzelak eskainitako aurrelaria dagoeneko ez dago goi mailan, baina Garfe enpresagaz zenbait partidu jokatzeko han eta hemen. Hain zuzen ere, Apatako jaietara etorriko da uztailearen 1ean. Beraz, errioxarraren zale izan zirenek zuzenean ikusteko aukera edukiko dute.


Titinegaz batera, kartel ederra osatuko dute beste hiru pilotariak. Profesional mailan punta-puntan ibilitako Xala eta Beroiz etorriko dira, eta laugarre-

na Oier Jaio atxondarra izango da. Afizionatu mailan urte askoko esperientzia du Jaiok, eta gaur egun Garfegaz jokatzeko du. "Neguan ere ibili gara jokatzeko, eta udan geratu barik ibiliko gara herririk herri". Ilusioa egiten dio herrikoen aurrean lehiatzeak. "Horrelako jendeagaz herriaren aurrean jokatzeko beti egiten du ilusioa", adierazi du. 18:30ean hasiko da jaialdia, eta lehenik herriko gazteek jokatu dute. Gainera, goizean herriko umeek erakustaldia egingo dute; tartean, palan dabilzan neskek ere bai.

Bestalde, gaur Axpen egongo den pilota jaialdian ere parte hartuko du Jaiok, Urbietta, Tainta eta Aldavegaz batera.



Titin III.aren ikuskizunaz gozatu ahalko dute atxondarrek. Julen Uribe



www.fuchosa.com

Europako automozio balazta sektoreko osagaien ekoizpenean liderrak gara

JAIAK!

BERRIZ

2018ko EKAINA



Emakumeen aurkako
indarkeriarik eta
eraso sexistarik ez!



JAIKETAN BE EUSKARAZ!



Berrizko jaiak 2018**Ekainak 28 eguna**

17:00 Pregoi Txikia udaletxean, Berrioiz Guraso Elkartegaz. Gero olinpiadak eta parte hartzen duten umeentzako askaria.

19:00 Pregoia eta txupinazoa udaletxean, Berrioiz Guraso Elkartegaz. Ondoren jaietako KARTEL LEHIAKETAREN sari banaketa udaletxean. Ostean, urtero bezala SARDINA-JANA.

19:15 Txosnen irekiera.

20:00 Donien Atxa eta DANTZARI DANTZA entsegu Elizondo Plazan.

21:00 Sustrai akordeoi taldea. Elizondo Plazan.

19:30 Sagardotegi ibiltaria
Ondoren, odoloste-jana Olakueta plazan.

22:00 Kontzertua: **La plata**. Ondoren **Rodrigo Cuevas**. Txosnagunean.

San Pedro eguna | Ekainak 29 barikua

11:00 Margo lehiaketa umeentzat. Udaletxeko lorategian. (Euria egiten badu, Eskolako patio berrian).

12:00 Meza nagusia. Ondoren DANTZARI DANTZA

17:00 TIRAGOMAS TXAPELKETA udaletxeko parkean. Maila ezberdinak.

18:00 Chef Nature Kale antzerkia Markeliñegaz. Eskolako patioan

19:00 Sakatu elektrotzaranga, Olakuetatik Elizondora

19:00 Falcons de Villafranca Giza irudiak. Elizondo Plazan.

19:30 Nesken IX. eta Mutilen XX. FRONTENIS TXAPELKETA FINALAK Olakueta

20:00 DANTZARI DANTZA.

21:00 Elizondo Plazan 80ko eta 90eko hamarkadetako RAVE RETRO eta jarraian Dj. Roberto.

22:00 Kontzertua: **MOCKERS, NUDOZURDO, VULK eta GYOZA**. Txosnagunean.

Ekainak 30 zapatua

10:00 Koadrilen bazkarirako lekuen zozketa. Elizondo Plazan.

11:00 -14:00 // 16:00 - 19:00 Trena Elizondotik Olakuetaraino.

12:00 'Hondartza' **Potxin eta Patxin pailazoak**. Eskolako patio berrian.

14:00 PAELLA LEHIAKETA udaletxeko lorategian.

15:00 Gazte bazkaria. Txosnagunean.

17:00 Umeentzako musika tailerra Umerrik antolatua.

17:30 Karta joko lehiaketa: MUS, TUTE eta BRISKA. Izen-ematea 17:00 - 17:30.

18:00 Koadrilen jaietsiera, txosnek antolatuta.

19:30 Herriko IGEL txapelketa. Izen-ematea 19:00 - 19:30

20:30 BOLO txapelketa.

21:00 Luhartz erromeria. Elizondo Plazan.

23:00 - 3:00 Indarkeria sexistarak gabeko gunea! Etorri eta informa zaitetz! Txosnagunean. 12 urtetik gorakoentzat.

23:00 Kontzertua: **KULTO KULTIBO** eta **DJ AINHOA**. Txosnagunean.

Uztailak 1 domeka

12:00 TRIBIALA (12 urtetik gorakoentzat). Udaletxeko Lorategian.

12:30 -14:00 Kultura arteko topaketak. Henna eta trentza tailerrak.

12:30 -14:00 // 16:00 - 19:00 Umeentzako parkea: Jumping, puzgarriak etab. Berrizburu kiroldegian.

14:00 Kultura arteko topaketak Munduko plateren dastaketa.

18:00 3*3 Saskibalo txapelketa 9-17 urte bitarteko neska-mutilentzat. Institutuko patioan. Ostean "Jaurtiketa libreen" Saskibalo txapelketa familientzat.

18:15 DANTZA, BILAKA "Leihotik". Elizondo Plazan. (Euria egiten badu eskolako patio berrian).

19:00 Bertsoak. Txosnagunean.

19:00 Musika eta Jaia EUSKAL DISKOFESTAGAZ. Eskolako patioan.

20:00 BITS JAIA.

21:00 Kontzertua: **LA PULGA**, ondoren, **SONAKAY**. Elizondo Plazan.

Santa Isabel eguna | Uztailak 2 astelehena

12:00 Meza nagusia eta DANTZARI DANTZA.

12:00 Udaletxeko lorategian kulki Hiriko Kirol Parkea.

14:00 Jubilatuentzat bazkaria. Bazkalostean musika. Kiroldegian.

18:00 Romance Latino (Boleroak).

19:15 Bizikleta martxa herrikoia, udaletxe aurrean hasita.

20:00 DANTZARI DANTZA

21:00 Tortilla lehiaketa udaletxeko lorategian.

21:30 Erromeria **TXIMELETA** musika taldeagaz. Elizondo Plazan.

23:00 SU ARTIFIZIALAK.



Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

- Optometriar teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

www.keinuoptomietriazentroa.com



Iturriza, 10
946 824 489
f 946 824 489
ferreteriaibaiondo@gmail.com
BERRIZ



express

Zengotitabengoa BERRIZ 946 824 215

Produktu ekologikoen
eskaintza



GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ




BERRIZ ARKITEKTOAK

Josu Oarbeaskoa
Patxi Ecenarro

Learreta Markina 24 behe, Berriz
T: 946 82 77 49 F: 946 55 07 60
E: o.josu@berrizarkitektoak.com

Ganeko Etxe JATETXEA



Tel.: 946 824 027
Elizondo, z/g - BERRIZ

Indarkeria sexistarik bako gunea jarriko dute, aurten, Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaietan

Jaiak aprobetxatuz, Gazte Asanblada antolatu dute; urte guztian zehar hainbat jarduera antolatzea eta herriko gazteak batzeko ekintzak egitea izango da euren helburua

JAIK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Pregoi txikiak (17:00etan), eta Berrioz Guraso Elkartearen pregoiak eta txupinazoak (19:00etan), hasiko dituzte, ekainaren 28an, Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiak. Uztailearen 2ra arte, denetari-ko ekintzekin gozatzeko aukera izango da Berrizko jaietan, Egoitz Gallastegik egindako kartelak islatzen duen bezala.

Aurreko urteetan bezala, jaiak aurkezteko egindako prentsaurrekoan udaleko eta jai batzordeko kideek aldarria egin zieten berriztarrei, jaiak parekideak izan daitezen eta euskaraz bizi ditzaten.

Horrez gain, lehenengoz indarkeria sexistarik bako gunea bat jarriko dutela jakitera eman zuten. Bertan, gainera, Berrizko Azeri Gorriak talde femi-

nistako kideek eurek sortutako hainbat material saltzeko aprobetxatuko dute.

Bost egunez egitarau zabala

Azken urteetan ohitura bilakatu den bezala, zapatua, ekainak 30, izango da Elizondo inguruan jai giroa gehien zabalduko den eguna. Kuadrillen Eguna ospatuko dute udaletxeko lorategian. Lagunartean paella lehiaketan parte hartu eta bazkaltzera elkartuko dira berriztarrek. Bazkalostean, parte-hartzaile asko izaten dituzten mus, tute eta briska lehiaketak egingo dituzte, udaletxeko lorategian.

Jaiak irauten duen bost egunetarako, adin eta gustu guztietarako ekintzak antolatu dituztela diote udaleko eta jai batzordeko kideek.

Ekintzak Gazte Asanbladaren eskutik

Aurtengo San Pedro eta Santa Isabel jaietarako, Gazte Asanblada eratu dute Berrizen. Ariane Otxandategik, Jone Narbaizak eta Nerea Aranburuk adierazi dutenez, gazteak batzeko asanblada eratzea "beharrezkoa" dela iruditu zitzaizkien. "Gure asmoa urte guztian zehar herriko gazteak batzeko ekintzak antolatzea da eta, hasiera emateko, jaiak baliatuko ditugu", esan zuen Narbaizak.

"Benetan pozgarria da herriko gazteak batzea eta udalera laguntza eske etortzea. Eurek ezagutzen dute ondoen euren errealitatea eta gu oso eskertuta gaude", adierazi zuen Bego Madariaga herriko zinegotziak.

Aurten eratu den Gazte Asanbladak hainbat ekintza antolatu ditu aurtengo jaietarako. Azken urteetan bezala, paella egunean, zapatuan, gazte bazkaria egingo dute txosnagunean. Ohitura bilakatu den lez, egun horretan mozorrotu egingo dira gazteak eta herrian zehar kalejiran eta poteoan ibiliko dira arratsaldean, kuadrillen jaitzieran.

Horrez gain, aurten txosna bi jarriko dituztela jakitera eman zuten. Txosna batean edaria salduko dute, eta bestean afaltzen emango dute. Gainera, txosna bi hauetan herriko hainbat elkarte elkarlanean arituko dira.

San Pedro eta Santa Isabel jaiak irauten duten bost egunetarako adin guztietarako eta gustu guztietarako ekintzak antolatu dituzte Berrizen



Ariane Otxandategi, Nerea Aranburu, Bego Madariaga, Jone Narbaiza eta Seve Alava, prentsaurrekoan.

pedro juan
J A T E T X E A

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A, Berriz - Tel./Fax: 946 824 143 - Mug: 658 758 421 - info@jaiobarnizatuak.com - www.jaiobarnizatuak.com

COMERCIAL AGRICOLA BASERRI TRESNAK

Nekazaritzako eta lorezaintzarako makinaren salmenta eta konponketa

Tel.: 94 682 40 87 - Pol. Ind. Eitua, 66 - BERRIZ
www.baserritresnak.com

STIHL
APPROVED DEALER

VIKING

HIERRROS RIEZU S.A.
burdinak eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net



Joan zen zapatuan ospatu zuten ikasturte amaierako jaialdian guraso elkarteko kideek ateratako argazkia. Aitor Aulestiarte.

Berrioiz guraso elkarteak jaurtiko du jaietako txupinazoa

Learreta-Markina eskolako gurasoek pregoia irakurriko dute ekainaren 28an

TXUPINAZOA • JONE GUENETXEA

Learreta-Markina eskolako Berrioiz guraso elkarteak ikasturte amaiera biribila izango du aurten. Elkarteko kideek "sorpresagaz" hartu dute jaietan txupinazoa jaurtitzeko ardura. "Jaietara ematea ohorea da, eta horretarako gugaz gogoratu izanak asko poztu gaitu", azaldu du Janire Gerenabarrena guraso elkarteko kideak. Aurreratu dutenez, pre-

goia gertu duten arren, ez dute erabaki oraindik udaletxeko balkoira nor igoko den. Elkartearen lana ezagutzera emateko baliatu gura dute jaien hasiera. Berrizko eskolan HHn eta LHn dabilen 519 umek (350 familia) ikasten dute. Familia horietako 10 bat kidek osatzen dute guraso elkarte, baina batzuetan beste guraso batzuen laguntza ere izaten dute. Guraso elkarteak eskolaz kanpoko ekintza guztiak

Berrizko eskolan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dabilen 519 umek (350 familia) ikasten dute

antolatuta eta kudeatzen ditu. Kultura, euskara eta kirola sustatzea da ekintza horien helburu nagusiak. Bestalde, guraso elkarte ikasturte amaierako irteera eta jaialdia antolatzeaz ere arduratzen da. Joan zen zapatuan ospatu zuten ikasturte amaierako jaialdia, eta bertan euskara eta parte-hartzea sustatu gura izan zituzten. "Aurten jai eredu aldaketa proposatu dugu. Helburu legez, euskara sustatzea jarri dugu. Kezkaz ikusten dugu gure herrian eta baita eskolan ere, geroago eta euskara gutxiago hitz egiten dela", dio guraso elkarteko ordezkariak. Beste hainbat elkartetan legez, parte hartze txikia ere kezkaz bizi dute. "Jendeak ez du kontuan hartzen hezkuntza komunitatea ikasleek, irakasleek eta gurasoek osatzen dugula. Gurasoek ere asko dugu egiteko", adierazi dute.

100 years FORJAS DE BERRIZ, S.L.



Pieza berezien forjaketa beroan

Iturriza, 22 • 48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 946 826 520 • Fax: 946 826 521
www.forjasdeberriz.com

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

ERENA ERRETEGIA
JATETXEA
Ondo pasa jaietan!!
Bº Ereña, 36 - 48240 BERRIZ
Tel.: 94 682 40 33

VCG DECOLETAJE
Vda. de Cándido Gastelurrutia, S.A.

☎ 946 824 012 ☎ 946 827 978

✉ info@vcg-decoletaje.com

www.vcg-decoletaje.com

Eitua industrialdea, 20. 48240 BERRIZ, Bizkaia

T.A. TORNILLERIA AMEZUA S.A.

TORLOJU eta PIEZA BEREZIEN FABRIKAZIOA

Geltoki, 13 - 36 PK - Tel.: 946 824 059 - Faxe: 946 827 980 - 48240 BERRIZ (Bizkaia)
www.tornilleria-amezua.com - jamezua@tornilleria-amezua.com



// ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 600€-tik hasita.

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. Laubideta kalean. Paregabeko pisua, 3 logela, komun bi, sukaldea, egongela, izugarritzko terraza 200 m2-koa, garaje bi, ganbara eta trastelekua.

DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbararekin.

DURANGO. Astarloa kalean. Hiru logelako pisua, Egongela balkoiarekin, komuna eta ganbara. 90 m2.

DURANGO. San Fausto. Logela biko pisua, sukaldea, bainugela eta logela. Merkea

BERRIZ. Etxebizitza guztiz berritua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 Logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berritua. Horrez gain, trastelekua.

// LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

// BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA. Izugarritzko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berrizatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000 €

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

// BULEGOAK ALOKAIKUAN

ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

// LOKALAK ALOKAIKUAN

DURANGO. Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

// LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, Bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

DURANGO 4 logela
4 komun

Hegoalden izugarritzko txaleta. lau logela, lau komun, lorategi berri-berria.

ELORRIO

Txaleta salgai. Apartako lorategiarekin. Prezioa ezinhobe.

Ofizinak alokagai, 40 m2 tik hasita.

LEMOA

Pabiloia. Kokapena ezinhobe. 1000 m2 . Alokagai.

BERRIZ

Duplexa salgai. 3 logela 3 komun, garajea eta trasteroa. berri-berria.

MAÑARIA

Baserria salgai. Guztiz konponduta. 2.000 m2 ko lur azalarekin. Herri ondoan.

DURANGO 3 logela
2 komun

Laubidetan etxe zoragarria 250 m2 rekin. 3 logela komun 2, ganbara trasteroa eta garaje 2.

ELORRIO 3 hekt.

Baserri. Aldape auzunean. Hiru hektarea lur sailarekin. Guztiz berrizatzeko.

DURANGO

Goienkalea, 100 m2 ko pisua, 90 m2 ko ganbararekin.

ATXONDO

Baserria salgai Marzanan teilatu berria eta 15.000 m2 lur sailarekin.

MATIENA

Pabiloia salgai. 450 m2 ko azalera. Zabala eta argitzua.

ELORRIO 8 hekt.

Miota. Izugarritzko Baserria salgai. Leku paregabea. 8 hektareako lur saila. Ezin hobe.



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

DURANGO 3 logela
100 m²

ASK. ETORBIDEA (DUPLEX)
100m2, 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia, Jangela, terraza eta trasteleku

220.000€

DURANGO

IPARRAGIRRE
3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, eguzkitsua eta lasaitasun zonaldea.

230.000€

DURANGO

MONTEVIDEO
2 logela, 2 bainugela, sukaldea esekitokiarekin, egongela, terraza handi bat, trasteleku eta garajea.

222.000€

DURANGO

IBAIZABAL . APARTAMENTO.
Erdi erdia, logela 1 , Sukaldea-esekitokia, ganbara eta garajea.

KONTSULTA EZAZU PREZIOA

DURANGO

3 logela, 2 bainubela, sukaldea, esekitokia, egongela terrazarekin, trasteleku eta garajea.

246.000€

DURANGO

AVDA. LANDAKO
3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, terraza, ganbara. Hegoaldean. Garaje eta trasteleku aukeran.

196.000€

DURANGO

3 logela, bainugela, sukalde-egongela, etxe osoa kanpora begira, zonalde lasaia.

140.000€

IURRETA

ASKONDO
85m., piso altu. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta terraza.

130.000€



Bart... Sax!

KONTZERTUA ETA JAM SESSIONA
DURANGO :: Ekainak 22

Sorginola gaztetxearen eta Musika Eskolaren arteko elkarlanetik

Bart... Sax! talde durangarrak kontzertua eskainiko du gaur Sorginola gaztetxean, 19:30ean. 70eko hamarkadako swinga, funka eta rocka uztartuko dute. Gero, 22:00etan, Jan Session edo saio irekia egingo dute, musikariei parte hartzeko aukera emanez. Abesti horiek jazzekoak edo pop-rock estandarrekoak izango dira, batez ere.

Ekainaren 22an

ELORRIO deialdia
Egoera politikoari buruzko hitzaldia
Aitor Estebanegaz
(EAJko parlamentaria),
19:00etan, Arriolan.

ELORRIO deialdia
Euskaraldiaren aurkezpena, 19:30ean, plazan.

ELORRIO ikuskizuna
'Crotch' ikuskizuna,
20:30ean, Arriolan.

Ekainaren 23an

ELORRIO San Juan
Artisau eta sortzaileen azoka eta talo eta garagardo postuak, 10:30ean Urarkan, umeentzako tailerra, 11:30ean plazan, DJ Jkin, 12:00etan, meza eta hamaiketakoa, 12:00etan, XVII xake azkar lehiaketa, 15:00etan, San Juan ermitara igoera, 16:30ean, umeentzako kopautxo eta magia ikuskizuna Txan magoagaz, 17:00etan, sua, suzko zezena, suen ikuskizuna eta Larima diskofesta, 22:00etan.

ABADIÑO san jua jaiak
umeentzako eskulanak, 17:00etan, doako pintxoan banaketa, 18:00etan, denontzako jokoak eta jolasak, 18:30ean, disko festa, 19:00etan, sua piztu eta txokolatea banatuko da, 22:30ean.

IURRETA San Juan
Puzgarriak, 16:00etan Askondon, dantzariak, 19:00etan plazan, jaietako kartelaren aukeraketa, 19:30ean, afari herrikoa, 20:00etan, erromeria Luhartz taldeagaz, 21:00etan, sua, eta ostean erromeriak jarraituko du, 22:30ean.

DURANGO jaiak
'Muruetako Torreko jaiak'. Txupinazoa, gaztelu puzgarriak, ludoteka eta paella lehiaketa, 12:00etan, puzgarriak eta umeentzako tailerrak, 17:30ean.



DURANGO San Juan
Aramotzen. Gaztelu puzgarriak eta trikipoteoa ostean, 18:00etan, Rio de Oroken eskutik Euskolabel produktuen parrillada, 20:00etan, su artifizialak, 22:15ean, sua, 22:30ean, kontzertua, 23:00etan, DJak, 01:00etan.

GARAI San Juan
Donien Atxa jartzea, ondoren kopaua eta San Juan sua, 20:00etan.

MAÑARIA San Juan
Umeentzako merienda, eta ostean eskulanak, 12:00etan, sardina-jana plazan, 20:30ean, akelarrea, sua eta erromeria, 22:00etan.

OTXANDIO San Juan
Suak Elizabarrin, Arrabalen, Basogain, Iturrizarren eta plazan. Txistulariak ibiliko dira jai giroa jartzen, 22:00etan.

BERRIZ San Juan
Sua, txapligoak eta kanpai hotsak, 21:30ean, Ansoagako bidegorrian.

MALLABIA San Juan
Sua, 21:30ean, Ansoagako bidegorrian.

MALLABIA San Juan
Goita auzoko jaiak. Donien Atxa jartzea, ostean, tortilla txapelketa, umeen jolasak, txapel jaurtiketa eta adarra jotzea, 19:00etan, sua, eta ostean txokolatea, 22:00etan.

DURANGO San Juan
Jaia Dj Txurrugaz, eta sua kanpoaldean, 20:00ean, Plateruenean.

DURANGO San Juan
Barrenkalen. Lore-sortak jartzea, 08:00etan, jaien hasiera Txoritxu Alaigaz, 12:30ean, umeentzako tailerrak, 12:45ean, Gehi Zazpi, 12:00etan, parrillada, 13:00etan, herri bazkaria, 15:00etan, El Reciclador 10, 17:00etan, mus txapelketa, 17:00etan, parrillada, 19:00etan.

Ekainaren 24an

MALLABIA San Juan
Meza, dantzak eta Aritz eta Eider bertsolari gazteen saioa, 12:00etan.

BERRIZ San Juan
Meza, eta ostean San Lorentzo dantza taldeko dantzari txikien dantza saioa, 12:30ean.



Mice

KONTZERTUA
DURANGO :: Ekainak 28

Intxaurre elkartean antolatu duten Eguenero kontzertu akustikoen zikloan, Miren Narbaiza Mice musikari eibartarra egongo da datorren eguenean, 20:00etan. Aurretiaz Napoka Iria taldean egin zen ezagun Narbaiza.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

NON DAGO TXIRLO? Haur literaturako liburua

AURKEZPENA • Miriam Peña artista eta irakasle durangarrak Eneritz Sanchez, Irene Fernandez eta Eider Eibarregaz batera landutako *Non dago Txirlo?* liburua aurkeztuko dute ekainaren 28an, 19:00etan, Urrikeri liburu dendan. Ipuin kontaketa saio bat egingo dute egileekin, liburuaren berri emateko. Atzo ere aurkeztu zuten, Artekan.



Jose Hornaren argazki erakusketa Zornotzan

ERAKUSKETA | Haizetara kaleko musika jaialdiaren tesuinguruan, *Jazz for two* izeneko erakusketa antolatu dute Zornotzako Zelaieta zentroan. Hilaren 20an zabaldu zuten, eta 30era arte egongo da ikusgai. Jose Horna argazkilaria lanek osatzen dute erakusketa; jazz emanaldietan espezializatutako artista da bilbotarra, eta bere argazki onenetako batzuk ikusi ahal izango dira Zornotzan. Liburu bat ere argitaratu du *Jazz for two* izen beragaz.

Hornak dioenez, eszenatoki gaineko begiradak eta komunikazio esplizituak erakutsi

gura izan ditu erakusketako lanekin, besteak beste.

20 urte baino gehiago daramatza jazz kontzertuetan argazkiak egiten, eta horren emaitza oparoa da. *Jazzografias* izeneko erakusketa egin zuen lehenengo, 1995ean, eta ordu tik zazpi osatu ditu dagoeneko, Euskal Herrian zehar hara eta hona eramane dituenak.

Aldizkari ugaritan

Horrez gainera, *Cuadernos de jazz* eta *Jazz hot* izeneko aldizkarietako argazkilaria ere izan da, beste hainbat argitalpenean kolaboratzeaz aparte.

GARAI San Juan
Meza, eta ondoren dantzariak, 11:00etan, oilasko paella txapelketa, 14:30ean.

DURANGO jaiak
'Muruetako Torrekoko jaiak'. herri kirolak, 11:00etan, gaztelu puzgarriak eta ludoteka, 12:00etan, igel txapelketa, 13:00etan, bits jaia, 16:30ean, txokolatada, 18:00etan, zozketa, 19:00etan, jaien amaiera, 20:00etan.

DURANGO antzerkia
'Kontu Kantari 2', 12:30ean, Plateruenean.

Ekainaren 27an

DURANGO musika
Ekuru taldearen kontzertua Uda Giro programaren baitan, 21:00etan, Plateruenean.

DURANGO artea
'Editore Mozorrotua' erakusketaren bisita gidatua Chema Elempuru artistagaz, 19:00etan, Arte eta Historia museoan.

Ekainaren 28an

DURANGO ipuin kontaketa
'Non Dago Txirlo?' ipuin kontaketa egileekin, 19:00etan, Urrikeri liburu dendan.

Ekaineko agenda



22 "KULTURA SAILA - ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA"
19:30 Helduentzako antzerkia "Claro y Clara no se aclaran"

23 "SAN JUAN BEZPERA"
12:30 Triki-poteoa
14:30 Bazkaria. Kimuak taldearen X. urteurrena
16:00-19:00 Puzgarriak Askondon
19:00 Dantzariak plazan
19:30-20:00 Jaietako kartelaren aukeraketa
20:00 Afari herrikoia
21:00 Erromeria Luhartz taldeagaz
22:30 San Juan sua piztuko da. Ohiturazko abestia kantatuko da. Jarraian, erromeria

29 "GOIURIKO AMA- NAGUSIEN ELKARTEA SAN PEDRO EGUNA - XXXIII. URTEURRENA"
13:00 "San Migel" Eleizan meza
14:00 Bazkaria Iurretako Pertsona Nagusien Etxean
17:00 Dantzaldia Nagusien Etxean
14:00 Bazkaria Iurretako Pertsona Nagusien Etxean

"SAN MARTIN JAIK AMATZA"
19:00 Doniel Atxaren igoera
19:30 Dantzarien azken entsegua
20:00 Trikitixa jaialdia. Ondoren, afaria

30 "ANDEREBIDE AMAIUR ETA BAIONAREN TXANGOIA"
8:00 Irteera "Maspe"n
"SAN MARTIN JAIK AMATZA"
20:30 Tortilla txapelketa
21:00 Afaria txapelketako tortillak dastatzeko. Ostean, bertsolariak
22:00 Erromeria



Gehi Zazpi taldeak kontzertua eskainiko du Barrenkaleko San Juan jaietan

Ekainaren 30ean

DURANGO dantza
Jorge eta Deienegaz ikasturte denboraldi amaierako jaia, 19:00etan, Plateruenean.

DURANGO zinema
Kale zinemaren Eneko Sagardoyren 'Handia' filmea emango da, 22:30ean, Benita Uribarrena parkean.

Ekaina eta uztailean zehar

DURANGO erakusketa
'Emakume Burugabea' erakusketa, Arteka liburutegian.

Zinema

:: Durango ZUGAZA

• *El Mundo es Suyo*
barikua 22: 19:30/22:00
zapateria 23: 16:30/18:30/20:30/22:30
domeka 24: 16:45/19:00/21:15
astelehena 25: 18:30/21:00
martitzena 26: 20:00
eguzatena 27: 20:00
• *Las Guardianas*
barikua 22: 19:30/22:00
zapateria 23: 18:30/21:30
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 18:30/21:00
martitzena 26: 20:00
eguzatena 27: 20:00
• *El Orden Divino*
barikua 22: 22:00
zapateria 23: 20:30/22:30
domeka 24: 19:00/21:15
astelehena 25: 21:00
martitzena 26: 20:00
eguzatena 27: 20:00
• *Superagente Canino*
barikua 22: 19:30
zapateria 23: 16:30/18:30
domeka 24: 16:45/18:00
astelehena 25: 18:30

:: Zornotza ARETOA

• *Jurassic World: El reino Caído*
barikua 22: 20:15
zapateria 23: 19:30/22:00
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 20:15



“Zuzenekoak ematearen eraginez ari gara ezagunak egiten; hori da bide naturala”

Bigarren lana kaleratu du Ander Olabariagak, Aritz Aranburuk, Odei Arrizabalagak, Bikendi Fernandezek eta Ander Aretxagak osatzen duten Worth It talde berriztarrak.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Euren zuzenekoak bezala, erritmo biziko ibilbidea darama Worth It taldeak. Azken hiru urtetan ehunka kilometro egin dituzte errepidean, kontzertuak eskaintzeko. Kontzertu bi jo dituzte ekainean, bata Oviedon eta bestea Berrizen, eta beste hitzordu bi dituzte aurretik: gaur, Larrabasterran, eta bihar, Barakaldon. Disko bi kaleratzeko tartea ere izan dute. Azkena, 'Better Ways', plataforma digitaletan eskegi dute berriki; udazken aldera biniloan kaleratuko dute.

Ez da beharrerako erritmo makala zuena.

Ander Olabariaga: Bai, eta ez da beti erraza izan. *Better Ways* grabatu aurreko sasoi nahiko gogorra izan zen. *Closer* diskoaren aurkezpen

kontzertuetan murgilduta geundela utzi zuten taldea Imanolek eta 'Zana'k. Adei eta Bikendi sartu ziren. Implikazio handia dugu taldean, eta Adeik ezin izan zuen jarraitu. Aretxaga agertu zen ostean. Aritz Aranburu: Diskoa aurtan kaleratzea erabakita genuen, eta hainbat zuzeneko ere hitzartuta genituen. Beraz, abesti zaharrak zein berriak sartu eta segituan ikasi behar izan zituen.

“**Euskal Herrian nahiko kontzertu eskaini ditugu, eta beste jauzi bat emateko garaia dela uste dugu**”

Odei Arrizabalaga: Aldaketa garrantzitsuak izan dira, baina buruan genuen erritmo mailari eusteko gai izan gara.

Izan du taldekide aldaketak eraginik soinuari?

A.A.: Guk hardcorea punk bizkor moduan ulertzen dugu. Disko berrirako aldaketatxo bat egin gura genuen, zuztarretara joz. Abesti laburrak eta zuzenak dira.

A.O.: Lehenbiziko diskoan probatutako alde astuna alde batera utzi eta punk influentzia nabarmentzen saiatu gara. Uste dut, hala ere, gure soinua ez dagoela oraindik guztiz zehaztuta.

Zeri buruz abesten duzue 'Better Ways' honetan?

O.A.: Abesti bakoitzak bere ideia du. Letra batzuk pertsonalagoak dira, eta beste batzuk orokorragoak. Hori bai, hitzak zuzenak dira, ez dugu metaforarik erabiltzen.

A.O.: Inguruan gertatzen denaz idazten sentitzen naiz erosoan. *Price Of Freedom*, adibidez, kritikoagoa da gizartearen funtzionamendurikiko, baina guk sentitzen dugun bezala abesten dugu.

A.A.: Orokorrean, jarrera eraikitzailea agertzen dugu kantuetan. Gustura gaude egiten dugunagaz, gure bideagaz, eta harro abesten dugu horretaz.

Zer moduz joan da grabazioa?

O.A.: Berrizko Estoldetan grabatu dugu ostera ere, eta aurrekoan baino gusturago egon gara. Beste mo-

du batera planteatu ditugu gauzak, eta asmatu dugulakoan gaude. Ni askoz erosoago egon naiz oraingo honetan.

A.O.: Lehenbiziko diskoagaz ikaragarri ikasi genuen. Ez bakarrik teknikoki. Horrelako prozesu bati zelan egin aurre ere ikasi genuen. Nik neuk gauzei hainbeste buelta ez ematen ikasi dut, gauzak sinpleago egiten. Gure estilorako baliagarria da hori, izan ere gurean zuzenekoak dira esentzia.

A.A.: Betirako geratuko den zerbait egiten ari zara. Estudiora joan, daukazun guztia atera, eta horregaz disfrutatzea da aberasgarriena. Prozesu osoagaz pozik geratzea itzela da.

A.O.: Etorkizunerako, fisikoki geratzen dena abestiak eta hauen soinua dira, baina norberaren oroitzen prozesua pertsonalki zein talde moduan nola bizi izan den geratzen da.

Don Furyk egin ditu masterizazio lanak. Nola irten zen aukera?

“

'Better Ways' grabatu aurreko sasoi nahiko gogorra egin zitzaigun, taldekideen joan-atorrien ondorioz”

A.A.: Friki batzuk gara gu, musika asko entzuten dugu eta bideo asko ikusi (barrez).

A.O.: New Yorkeko hardcore eszenako pertsonaia garrantzitsua da Fury. 80ko hamarkadako kultuko disko asko bere eskuetatik igaro dira: Agnostic Front, Sick Of It All, Warzone... Masterizazio prozesua delegatzea gura genuen.

A.A.: New Yorkera bidali dugu, hardcorearen mekara! Dudak eduki arren, azkenean idaztera animatu ginen eta egunean bertan erantzun zigun. Oso hurbileko tratua eduki dugu beragaz.

A.O.: Horrelako detaileekin ikusten da zein hurbilekoa den hardcore munduko jendea, eta gure ikuspuntua indartzen du horrek.

Zuzenekoekin hasiko zarete orain.

O.A.: Lehenik eta behin, asteburu honetako kontzertuak ditugu. Durangaldean eta Euskal Herrian nahikotxo jo dugu, eta gogoia dugu kanpora gehiago irteteko. Errepidean lagun ugari egin ditugu. Horietako asko Oviedon egon ziren, eta horrek esan gura du zerbait ondo egin dugula orain arte. Beste jauzi bat emateko garaia dela uste dugu.

A.O.: Kontzertuak emateko deitzen digute, eta hori txarto egiten ez dugulako da. Jendeari gustatzen zaio ikusten duena, eta kontzertu asko lortzen ditugu ahoz ahoko lan horri esker.

A.A.: Aktibo egotea da kontua. Europara joatea ere gustatuko litzaiguke, eta uste dugu helduko dela hori egiteko unea ere.

Ander Erzillaren Ekuru proiektuak emango dio hasiera Uda Giro programari Durangon

Zortzi ikuskizunek osatzen dute programa berria; emanaldiak doakoak dira, eta Durangoko hainbat tokitan egingo dira

UDA GIRO • ARITZ MALDONADO

Ander Erzillak gidatzen duen Ekuru proiektuak zabalduko du aurturaren Jazzeruena zikloa. Datorren eguaztenean eskainiko dute kontzertua, ekainak 27. Ekuruk poesia musikatua du abiapuntu. Aspaldi idatzitako testuak erreskatatu ditu horretarako durangarrak, ostean musika jartzeko. "Jazzean ohikoa den bezala, musikarien artean elkarriketak ere egongo dira, noski", azaldu du Erzillak berak. Uda garairako beste hiru kontzertu ere lotuta dituztela aurreratu du musikariak. Erzillaz gainera, Mikel Nuñezek, Irati Bilbaok, Javier Fernandez de Jauregi 'Txubio'-k eta Iñaki Jaiok osatzen dute Ekuru. "Bost musikaririk lau durangarrak gara, eta hiru belaunaldi elkartu gara; Durangon musikaren gurrupilak biraka jarraitzen duela adierazten du horrek", gaineratu du Erzillak. *Blue Belus* aurkeztuko du boskoteak.

Uda Kalean Bizi eta Jazzeruena egitasmoen baturatik sortu da Uda



Ander Erzillak, Mikel Nuñezek, Irati Bilbaok, Javier Fernandez de Jauregi eta Iñaki Jaiok osatzen dute egun Ekuru.

Giro programa. Iaz egin zen jazz kontzertu zikloa lehenbizikoz, eta izandako harreragaz pozik geratu ostean, aurturaren errepikatzea pentsatu zuten antolatzaileek. "Udan Durangon geratzen direnek ere

eskaintza bat edukitzea merezi dutela uste dugu", azaldu zuen Plateruenerako Ihintza Orbegozok aurkezpenean. Uztailearen 4an, Ander Garciak euskal folklorean oinarrituriko jazz piezak eskainiko

ditu. Proposamen modernoagoa dute Buffalo zarauztarrek. Hain zuzen ere, jazz eta rocka uztartzen dituzte, post ukituagaz; uztailearen 11n izango da hirukotearen kontzertua. Euskal Herrian funkaren

erreferentziakoa den The Cherry Boppersek itxiko du kontzertuen zikloa, uztailearen 18an.

MAX saria Durangon

Urteetako ibilbidea izan du Uda Kalean Bizik. Orduetik, artista ugari parte hartu dute udako egitasmoan. Aurturaren, ohi bezala, kalitate handiko obrak ikusi ahalko dira Durangoko kaleetan. Markeliñek familia osoarentzat den *Chef Nature* antzezlan eskainiko du, uztailearen 6an. Bestalde, publiko mugiarazi gura duen dantza ikuskizun sorta eskainiko dute, uztailearen 14an, Ezkurdi osoan zehar. Hiru obra ikusi ahalko dira, 19:00etan hasita. Doos kolektiboaren *El Fin de las Cosas*, Kukai & Brodaren *Topa* eta Ertza dantza taldearen *Meeting Point*. Azken honek MAX sari entzutetsuen kale ikuskizun saileko saria irabazi du. "Euskal antzerkigintzaren mailaren erakusle da programa hau", adierazi du Arantza Arrazola San Agustineko teknikariak. Trapu Zaharra konpainiak itxiko du Uda Giro, *Sefini* ikuskizunagaz. Beste nobedade bat kale zinema izango da. Ekainaren 30ean, Eneko Sagardoy protagonista duen *Handia* eskainiko dute Benita Uribarrena parkean. Eurria eginez gero, ekitaldiak Plateruenean, Andra Mariko elizpean edo San Agustinen egingo lirarteke.

Asier Gozategik Amatzako auzoko 4. Trikitixa Jaialdian parte hartuko du, ekainaren 29an

Durangoko Gorka Valdes trikitilari gaztea ere oholta gainera igoko da lurretan

TRIKITIXA • JONE GUENETXEA

Iurretako Amatzako auzoa Euskal Herriko trikitilarien topaleku izango da ekainaren 29an. Auzo honetako trikitixa jaialdiak laugarren edizioa izango du aurturaren. Parte-hartzaileei dagokienez, Asier Gozategi musikari ezaguna Iurretako oholtzara igoko da, Julen Alonsogaz batera. Erromeria denboraldia hasi berri, Epelde eta Lutxurdio gipuzkoarrek ere parte hartuko dute

jaialdian. Bizkaiko ordezkariak ere ez da faltako. Andoni trikitilari bermeotarrak Iñaki izango du lagun. Durangaldeko ordezkariak ere gonbidatu dituzte ekitaldira. Gorka Valdes durangarrak hirukotea osatuko du Marina Ereña eta Julen Leturiondogaz.

Gazteei plazetan jotzeko aukera eman guran, antolatzaileek Olatz eta Maddi ahizpa bergararrak ere gonbidatu dituzte jaira. Xabier

Etxanizek eta Ainara Salazarrek biribilduko dute kartela.

Hegoi Petite antolatzaileak nabarmendu duenez, lau urteotan egonkortu egin da jaialdia. "Aukera polita da trikitilari ezagunak eta gazteak elkartzeko. Aukera ona izaten da beste trikitilariak ezagutzeko", dio Petitek. Talde bakoitzak 10 minutuko emanaldia eskainiko du. Amaieran auzo afarian batuko dira.



lazko trikitixa jaialdia jendetza batu zen.

 <p>San Agustin Kultur Gunea Plateruena Kafe Antzokia</p> <p><i>uda giro</i> 2018</p> <p>Durango</p> <p>JAZZERUENA - ZINEMA - ANTZERKIA - DANTZA MUSIKA - KINE - TEATRO - DANZA</p>	<p>Plateruena</p>  <p>JAZZERUENA</p> <p>Ekainak 27 · 21:00etan</p> <p>EKURU Blue Belus</p> <p>Musika</p>	<p>Benita Uribarrena Parkea</p>  <p>ZINEMA</p> <p>Ekainak 30 · 22:30ean</p> <p>HANDIA Aitor Arregi Jon Garaño</p> <p>Zinema</p>	<p>Plateruena</p>  <p>JAZZERUENA</p> <p>Uztailak 4 · 21:00etan</p> <p>ANDER GARCIA</p> <p>Musika</p>	<p>San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA</p>  <p>SAN AGUSTIN Kultur Gunea Sanagustinalde, 12 DURANGO Tel.: 946 030 021 sanagustin@durango.eus</p>	 <p>PLATERUENA Kafe Antzokia Landako Hiribidea, 4A DURANGO Tel.: 946 030 300 jatebtxeo@plateruena.net</p>
--	--	--	--	--	---

Banden eta kale musikaren Haizetara lehiaketak Zornotza girotuko du

Gaur hasi eta igandera bitartean, fanfarre doinuek Zornotzako kaleak hartuko dituzte



Nazioarteko hainbat bandek parte hartzen dute Zornotzan

MUSIKA • A.M.

Hamahirugarrenez, kale musikaren hiriburu bilakatuko da Zornotza gaurtik aurrera. Domekara arte, nazioarteko bederatzi bandek parte hartuko dute bertan, Trapejistak banda bizkaitarragaz batera. Kaleko musikariek hainbat estilo uztartuko dituzte. Bandarik onenaren, instrumentistarik onenaren eta publikoaren saria irabazteko lehiaketak dira jaialdian. Lehiaketatik kanpora, Frantziako Accoustel eta Zornotzako Kittu taldeak ere arituko dira.

Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Argentina eta Herrialde Katalanetako taldeak etorriko dira

Bandarik onenaren, instrumentistarik onenaren eta publikoaren sariak banatuko dituzte

Jaialdiko beste protagonistetako bat gastronomia izango da, izan ere, lau gune egongo dira janariaz gozatzeko. Bestalde, ekainaren 30era arte, Jose Hornaren *Jazz For Two* argazki erakusketa ikusgai egongo da Zelaieta Zentroan.

Geure Durangaldea



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo Durangoko museoaren zuzendaria

Mezenas, Medici eta Olave

Gaio Zilnio Mezenas (K.a.70-8) noble erromatarra izan zen, diplomazialari trebea eta Oktavio Augusto enperadorearen kontseilaria, baina historian ezaguna egin bada, arteagatik eta artistenganako izan zuen interesagatik izan zen. Olerkariak babestu zituen, Zesarren irudia omendu zezaten eta bere karreara politikoa bultzatzeko. Bere abizena, artisten sorkuntza diruz laguntzen duen pertsonaren sinonimo bihurtu da.

Historian zehar mezenas ugari egon dira. Aipagarrienak errenazimendu garaikoak izan ziren; horien artean, Medici familia izan zen ezagunena. Mendeek aurrera egin ahala, mezenasgoaren ideia aldatuz joan da. Errenazimenduan mezenasaren menpe egoten zen artista. Gaur egun, ordea, artistak libreak dira. Baina egia da gero eta zailagoa dela mezenasa izatea. Legeak ere oztopo bihurtzen dira kasu askotan. Espainiaren kasuan, mezenasgoaren legea 2002koa da, eta lege horrek asko oztopatzen du, batez ere, kasu pribatuetan, artea finantzatzea. BEZaren igoerak ere kalte handia egin dio; prezioak asko igo dira, arte galeria asko ixten ari dira, artea ez da erosten, artistak ezin dute beraien lana saldu...

Zorionez, José Ignacio Olaveren moduko pertsonak badaude oraindik. Nahiz eta bere burua ez duen mezenastzat hartzen, mezenasa da. Euskal artista batzuen lanak editatu ditu eta orain Durangoko Arte eta Historia Museoan daude ikusgai horietako batzuk "Editore mozorrotua" erakusketan. 9 artisten lanak editatu ditu eta, guztira, 60 artelan batzen dira erakusketan. Irailaren 16ra arte ikusgai egongo da. Ez galdu aukera!

25 urtean bildutako obrak erakutsiko ditu Olavek 'Editore Mozorrotua'-n

Jose Ignacio Olavek mende laurdena darama editore lanak egiten; ia 85 edizio egin ditu



Mikel Lertxundi arte komisarioa, Aitziber Irigoras alkatea eta Garazi Arrizabalaga museoaren zuzendaria, aurkezpenean.

ARTEA • A.M.

Daniel Tamayok 1981ean egin zuen Durangaldea (triptikoa) lanaren birmoldaketa da erakusketako lanik ikusgarrienetako bat. Guztira, bederatzi artisten 60 bat obra egongo dira ikusgai irailaren 16ra bitartean Arte eta Historia museoan. Besteak beste, Alberto Rementerien, Jose Antonio Azpilicuetaren eta Chema Elempururen lanak egongo dira. Bestalde, udan zehar bisita gidatuak eskainiko dituzte erakusketako editore eta artistekin batera. Ekainaren 27an izango da lehenbizikoa. Uztailaren 4an (Daniel Tamayogaz), uztailaren 18an (Jose Antonio Azpilicuetagaz) eta irailaren 5ean (Alberto Rementeriegaz) izango dira besteak. Izen emateko, museora deitu edo mezu elektronikoa idatzi daiteke.

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak



HELDUENTZAT
GASTEIZKO
GASTETXEA
30 URTE
Askoren artean
(2018)



UME ETA
GAZTEENTZAT
BELEA
Leo Timmers
(2017)



DE NINGUN
SITO A NINGUNA
PARTE
M.C.D.
(1991)

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

94 621 79 02

anboto
komunikabideak



Emilio Esturo Altuna
Durangoko Kulturalako
zuzendaritzako kidea
Zornotza (Berna) |
1937

“Zuzendaritzan nabilen 40 urteetan, inoiz ez dut ikusi oraingoaren moduko giroa”

Zuzendaritzan dabilen lau hamarkadetan Kulturalaren etxeko zein kanpoko partidu ia denak ikusi ditu. Domekakoa ez da salbuespena izango. Durangoko taldea Bigarren B Mailara igo daiteke eta sufritzeko prest dago.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Tabernako mostradorean egunkaria irakurtzen dago Emilio Esturo. Durangoko Kulturalari buruzko albisteetan jarrita du arretoa. "Azkenaldian alde guztietan irteten gara", diotso, begirada jasota, heldu berri den kazetariari. 40 bat urte daramatza Kulturalako zuzendaritzan eta presidente ere izana da. Kulturalari buruz dakienik badago, hori bera da. Domekako partidu handiaren inguruko sentsazioak partekatu ditu.

12:00etan hasiko da San Fernando taldearen kontrako partidua, domekan. Joanekean 0-1 irabazita, zer itxura hartzen diozu itzulikoari?

Emaizta ona da, baina ez behin betikoa. Kontuz! Conquense eta Alcala San Fernando baino talde ho-

betxoak direla esango nuke, baina haiek ere badakite futbolearen. Aurrelari on bi dituzte eta geldikako jokaldietan arriskutsuak dira. Albo-ko sakeetan baloia areara sartzeko ahalmena duen jokalaria bat dute.

Giro ona biziko da.

Seguru. Zuzendaritzan nabilen 40 urteetan, inoiz ez dut ikusi oraingoaren moduko giroa. Iaz ere promozio partiduetan giro ona egon

“

Emaizta ona da, baina ez behin betikoa. Aurrelari on bi dituzte eta arriskua dute geldikako jokaldietan”

zen Tabiran eta aurtengoa itzela da. Asko gazteak dira, gainera. Domekan, 11:00etan, txaranga bat ibiliko da kaleetan eta Tabirara joango dira.

Urduri zaude?

Egonezinagaz nago. 81 urte ditut eta zenbat eta zaharrago, orduan eta gehiago sufritzen dut. Astea lasai eman dut. Kanaria Handitik euforiko itzuli nintzen eta egun gozoak izan dira. Baina gaurtik aurrera buruari bueltak ematen hasiko naiz, seguru. "Eutsiko al diogu emaitzari?" edo "lortuko ote dugu igotzea?", horrelako burutazioak izango ditut. Eta partiduan bertan, zer esanik ez! Joan zen astean, markagailuan aurretik joanda ere, harmailetatik joatekotan egon nintzen, nerbioak dantzan. "Eutsiko ote diot eserita?", pentsatzen nuen.

Kulturalaren igoerak zuzendaritzan bizi izan dituzu zuk. Zelan gogoratzen dituzu?

Arriandin Lagun Ona izeneko soziedadearen bueltan futbol taldea sortu genuen. Orduan, Kulturalak une txarra bizi izan zuen eta errejonial mailan zebilen. Lagun Onan genbiltzan batzuk sartu ginen zuzendaritzan: Santi Ibarra presidente moduan, ni neu... Taldea hartu eta urte berean igo egin genuen. Jokalari onak etorri ziren: Rafa Iraurgi, Fernan Bilbao, Txema Lasa... Handik urte bira Hirugarren Mailako liga txapelketa irabazi genuen, baina ezin izan ginen igo. Figueres taldeak kanporatu gintuen. Handik

urte gutxira neu jarri nintzen presidente, 1985-86 inguruan. Hurrengo urtean liga txapelketa irabazi genuen. Mailen berregituraketa bategatik aurreneko hirurak igo zitezkeen: Baskonia, Lemoa eta gu. Beste biak ez ziren igotzearen aldekoak, gastu asko eragingo zituela eta. "Ba, gu bagoaz, saiatzeko prest gaude", esan nien. Igo egin ginen eta hurrengo urtean goiko postuan amaitu genuen, seigarren uste dut. Bost urte eman genituen Bigarren B Mailan. Etapa hartako hiru urteetan egon nintzen presidente. Beste etapa batean sei urte egin nituen. Bederatzi urte guztira.

2005-2006an Kulturala berriro igo zen Bigarren B Mailara.

Mailaz igotzeko, kanporaketa bi gauditut behar ziren. Lehenengoa Nafarroako Eguesi irabazi genion. Bigarrena Zaragoza C-ren kontra jokatu behar genuen, baina euren B taldea jaitsi egin zenez, jokatu barik igo ginen. Zoritxarrez, handik urtebetera jaitsi egin ginen berriro. **Kulturalako talde asko ezagutu dituzu. Zein da zuk ezagutu duzun hamaikakorik onena?**

“

Egonezinagaz nago. 81 urte ditut eta zenbat eta zaharrago, orduan eta gehiago sufritzen dut partiduetan”

Talde on asko ezagutu ditut. Iraurgi, Lasa eta Bilbao zeuden hura oso ona zen. Futbolari itzelak ziren. Aurrerago, Juan Carlos Gomez de Segura eta Juan Carlos De Diego izan zituen taldea ere gogoratzeko modukoa da. Etapa hartan gol asko sartzen genituen. Aurtengo taldeak ere zelako denboraldia egin duen! Itzela! Talde batua dira. Oso motibatuta eta kontzientziazatuta daude. **Zuzendaritzan zaudenetik, Kulturalaren zenbat partidu ez zenituen zuzenean ikusiko? Etxekoak eta kanpokoak kontuan hartuta.**

Hamabost bat? Gehiago ez ziren izango. Kulturala klub berezia da niretzat.

Gaztetan atezaina izan zinen. Zein taldetan jokatu zenuen?

Amorebietan hasi eta Kulturalera joan nintzen gazte mailan. Gero Amorebietara bueltatu nintzen eta handik berriro Kulturalera! Ostean, urtebete Baskonian eman nuen, Bigarren Mailan. Etxebarria atezainaren ordezkoa izan nintzen. Gerora Athleticera helduko zen Etxebarria. Hura izan zen nire azken urtea. Gazterik utzi nuen futbola, 25 urte-gaz, lanagatik.

Futbola asko aldatu da?

Bai. Gaur egungo futbola, pase horizontalena... ezin naiz horretara ohitu. Sarritan gure jokalariek ere egiten dute. Nik gurago dut joko hau: erregate on bat eta pasea aurrera, hegaletik erdiraketa eta errematea. Gurago dut sasoi bateko jokatzeko modua.

"Etxean harmailak beteta ikusteak izugarrizko indarra ematen dio taldeari"

Domekan, 12:30ean, promozioko azken partidua jokatuko dute Durango Nissan Gaurako jokalariek Arripausetan; durangarrek Belenos talde asturiarra izango dute aurkari



Aritz Iraeta eta Gaizka Iturriagaetxebarria.

ERRUGBIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Maiatzean Burgos Ohorezko Mailara igo ostean, Durango Nissan Gaurari ate bat zabaldu zitzaion Ohorezko B Mailan gelditzeko. Joan zen asteburuan Belenos talde asturiarraren aurka jokatu zuten durangarrek eta jipoi handia eman zieten, 0-92 irabazita. "Hasieran ez genekien zer aurkituko genuen. Baina, partidua erritmo onagaz hasi, Gaizkak lehen puntuak eskuratu, eta aurrera egin genuen", adierazi du Aritz Iraeta (Berriz, 1991) DRTko jokalaria.

Durangarrek orain hilabete bi inguru amaitu zuten denboraldia, baina promozioa jokatu eta gogor lan egiten ibili dira Ohorezko B Mailan gelditzeko. Gaizka Iturriagaetxebarriaren (Abadiño, 1993) hitzetan, "hilabete intentsioak izan

dira, askok ikasi edo lan egiten dute eta entrenamendu guztietan denok batzea oso zaila izan da".

Hala ere, denboraldi guztian egindako lanak eta azken hilabete hauetako sakrifizioak merezitako saria itzuliko diete DRTko jokalariei. Oker handirik ezean, datorren denboraldian Ohorezko B Mailan jokatu dutela ospatu ahal izango dute jokalariek domekan, etxean, euren zaleen aurrean. "Aurkariak gure errespetu guztia

Joaneko partiduan DRT talde durangarrak 0-92 irabazi zion Belenos talde asturiarrari

merezi dute, eta, beraz, domekako partidua amaitu arte ezin izango dugu ezer ospatu", esan du Iraetak. Bestalde, Asturiasen jokatu zuten intentsitate berdinean jokatu dutela aitortu dute.

Jokalaria biak bereziki motibaturik daude etxean promozioko azken partidua jokatu dutelako. "Etxean harmailak beteta ikusteak izugarrizko indarra ematen dio taldeari. Zarata hori itzelean eskertzen dugu", esan du Iraetak. Horregatik, eta zaleek merezi dutelako, %100 emango dutela baieztatu du abadiñarrak. "Zaleek disfrutatzea ere bada gure helburua. Horregatik, partiduen ostean gugaz ospatzera etortzeko gonbidatzen ditugu Arripausetara datozenak", amaitu du Iturriagaetxebarriak.

Kulturalak eta Portugaletek zer egingo duten zain dago lurretako, mailaz igoko den jakiteko

Hirugarren Mailako talde biak mailaz igotzen badira, lurretako maila horretara igoko da asteburu honetan

FUTBOLA • J.D.

Arabian 1-4 irabazita, lurretakok bigarren tokian amaitu du Ohorezko Mailako igoera fasea. Baina oraindik ez daki klubaren historiako denboraldirik onena Hirugarren Mailarako igoeragaz ospatuko duen ala ez. Igoera gauzatu ahal izateko, aldeko emaitza

bi izan behar dira asteburuan: Durangoko Kulturalak eta Portugaletek Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara igotzea lortu behar dute. Kulturalak gol bateko abantaila dakar Kanaria Handitik. Portugaletek lan zailagoa du. Bana berdindu zuen etxean eta itzuliko neurketa Castellon jokatu du.



Klubaren historiako denboraldirik onena osatu duten jokariak.

Markina eta Zeanuri gazteen txapelaren bila, Zaldibarren

PILOTA • J.D.

Gaztetxoan Bizkaiko herri arteko txapeladuna Zaldibarren erabakiko da gaur, 18:00etatik aurrera. Markina-Xemein eta Zeanuri heldu dira finalera. Markina-Xemein izango da faborito, baina ez fabori-

to argia. Final parekatua itzaroten da harrobia bikain lantzen duten herri bien artean. Nagusien mailako herri artekoan ere aurrez aurre izan ziren finalerdietan eta orduan Markina-Xemeinek irabazi zuen.

Final handiaren aurretik hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduak jokatu dituzte Sopelako eta Galdakaoko pilotari gazteek.

Asteko kirolaria



OIER ARIZNABARRETA AGIRRE

Durango, 1983

"Maratoiekin nuen arantza atera dut Tolosaldeko 3 Tontorrek proba irabazita"

Lehenengo kilometroan bakarrik geratu zen buruan eta inork ezin izan zuen harrapatu

ratik amaierara. Horrela, maratoi distantziagaz zuen zorra kitatu du Oier Ariznabarreta korrikalari durangarrak Tolosaldeko 3 Tontorrek lasterketa irabazita.

Lasterketa ia osoa bakarrik egin zuen, ezta?

Lehenengo 500 metroetatik aurrera bakarrik joan nintzen. Bederatzigarren kilometroan, Ernio tontorrean, tarteko hemuga ze-

goen, 200 euroko diru sariagaz, eta handik lehenengo igarotzea nuen helburu. Orditik aurrera indarrak dosifikatzen joan nintzen, lasterketa luzea zen eta.

Distantzia laburragoetako korrikalaria zara normalean. Garaipena maratoi distantzian lortu izanak balio erantsia du?

Bai. Betidanik lasterketa laburrak egin ditut, 10 edo 20 kilometrokoak. 25 kilometrotik au-

rrerakoak luze egiten zaizkit. Entrenamenduak ere ez ditut distantzia luzeetara bideratzen. Maratoiekin beti izan dut arantza hori eta erronka moduan neukan ondo egitea. Zegama-Aizkorri eta antzerakoak txarto atera izan zaizkit. Beraz, Tolosaldeko 3 Tontorrek proba irabazita, maratoiekin nuen arantza hori atera dut.

Zelan doa denboraldia eta zeintzuk dira hurrengo erronkak?

Mendian beti egiten ditut Sarako eta Berako lasterketak. Hortik aurrera, ekainean eguraldi ona egiten hasten denez, utzi egiten diot korrika egiteari. Lasterketetan beharrean, bestelako ekintzak egiteko aprobetxatzen ditut asteburuak. Baina, aurtun, begira zelako eguraldia dabilen egiten! Geratu barik nabil entrenatzen. Tolosaldeko proba gonbidatu nindute-nean, gustura onartu nuen.

Beraz, azken asteetan eguraldi ona egin izan balu, ez zenuen Tolosaldeko proba irabaziko!

Ba, ez (barrez). Eguraldia ikusita, eta neskalaguna lanean ibilita, arratsaldetan hortxe ibiltzen naiz, korrika. Batzuk tabernara joaten dira, ni entrenatzera.

Distantzia laburragoetan lortu ditugaraipenik gehienak, baina joan zen asteburuan 43 kilometroko lasterketan nagusitu zen, hasie-

Zornotzak zaleen aurrean irabazi dezake Bizkaiko herri arteko lehenengo txapelketa

Azken hamarkadan bost txapel irabazi dituen Markina-Xemein izango dute aurkari, domekan, Zornotzako pilotalekuan



Ezkerretik eskumara: Iñigo Atutxa, Gorka Lazkano, Lier Arrien, Iñigo Elorriaga, Aimar Morgaetxebarria eta Txaber Zabala.

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzak sekula ez du irabazi 1970etik jokatzeko den Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketa. 2001ean gertu izan zuen, baina finala Elorrirentzat izan zen. Etzi beste aukera bat izango du. Azken hamarkadan bost txapel irabazi eta bederatzi final jokatu dituen Markina-Xemein izango du parez pare. Pilotari handi horiei aurre egiteko, zaleen animoak alde izango ditu. Izan ere, finala Zornotzako pilotalekuan jokatu da.

Kadeteetako partidua 17:00etan hasiko da, domekan. Zornotzarrak faborito dira Aimar Morgaetxebarriagaz eta Lier Arrienegaz. 2002an jaiotako gazteek bikote sendoa osatzen dute. Aurten lehenengoz probatu dute trinketea, eta Bizkaiko

txapelketa eta Euskadiko klubaren arteko irabazi dituzte elkarregaz. Ilusioa eta urduritasuna, bietatik dute, baina beste ezeren gainetik eguna heltzeko desiratzen daude. "Gogo handia dugu partidua jokatzeko", aitortu du Arrienek. Izan ere, finalerdietan Bizkaiko txapel-

Gazte mailetan faboritoek irabazten badute, nagusietan erabakiko da aurtengo txapela

dunei partidu biak irabazita, badakite sasoiaren daudela. Aurkariak, Arandia eta Iriondo, ondo ezagutzen dituzte eta garbi dute taktika zein den. Jokoa atzean kargatzen

eta atzelaria zigortzen saiatuko dira, errematerako aukera garbiak sortu arte.

Teorian, gazteen partidua da gaitzena. Gorka Lazkanok eta Iñigo Atutxak adin horretan aurkitu daitezkeen bikoterik sendoenetakoa izango dute parean. Josu Agirre-mailloa aurrelaria, esaterako, gaur egun gazte mailan dagoen pilotaririk onenetakoa da. Hala ere, ez dute partidua galdutzat ematen, arrazoi birengatik. Batetik, sasoiaren daude. Atutxak Bizkaiko trinkete txapelketa irabazi du oraintsu. Bestetik, "partidu bakarrera sekula ez delako jakiten zer gertatu daitekeen", Lazkanok dioen moduan.

Aurreikuspenak betetzen badira, nagusien partiduan erabakiko da txapela. Zornotzarren bikotea

Txaber Zabala beteranoak (Lezama, Zornotzan bizi da, 1979) eta Iñigo Elorriaga gazteak (Zornotza, 1996) osatzen dute. Zabalauren ustez, aurkariak dira faborito: Albisu eta Ibarloza. "Guk sendo jokatu behar dugu. Final bat da, pilotari gazteak daude tartean, urduritasunak era-

Nagusien mailako bikotea Txaber Zabala beteranoak eta Iñigo Elorriaga gazteak osatzen dute

gin dezakete... Azkenean, edozer gertatu daiteke. Guk biok hartueman ona daukagu eta hori transmititu egiten da kantxan. Elkar ondo hartzen dugu".

Adituaren txokoa

Iñaki
Iza Zarazua
Pilotari ohia



Gozatzeko finala

Igandean Bizkaiko Herriarte Pilota Txapelketako finala jokatu dute Zornotzako Amorebieta IV pilotalekuan. Bertan, esperientzia oso desberdina duten bi herritako ordezkariak hartuko dute parte; alde batetik, Zornotzakoak egongo dira, txapelketaren historian finala behin baino jokatu ez dutenak; 2001. urtean izan zen. Eta, bestetik, Markinako ordezkariak, finalak jokatzera ohituta daudenak, azken hamaika urteen barruan jokatu duten bederatzigarren final handia baita igande arratsaldekoa. Meritu handiko lana egiten ari dira markinarrak.

Esan bezala, 2001. urtean jokatu zuen Zornotzak final bakarra. Mallabian izan zen, Elorrioren aurka, eta kadete mailako partidua jokatu nuen nik. Partidua zein kanporaketa galdu arren, oroitzen zaitzaten zoragarriak gordetzen ditut esperientzia hartatik: herriaren mobilizazioa, giroa, telebista, gure herria ordezkatzaren ardura... Urduritasunak erabat jan ninduela ere gogoan dut, eta horregatik ezin izan nuen partiduez gozatu. Orduan, urte gutxira final gehiago jokatzera iritsiko ginela uste genuen, baina errealtateak oinak lurrean jarri zizkigun eta 17 urte pasatu dira berriz esperientzia eder hura bizitzeko aukera heldu zaigun arte.

Horiek horrela, ez dago esan beharrik Bizkaiko Herriarte Pilota Txapelketa gure herriko ordezkariak irabaztea gustatuko litzaidakeela, baina, horren gainetik, talde bietako pilotariak egun horretaz gozatu dezaten desio dut, azken batean oroitzen eta bizipen horiek izango baitira barruan betiko gordeko dituztenak eta etorkizunean gogoratuko dituztenak. Zorte on gozatie!

 **Smurfit Kappa**
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

 **Smurfit Kappa**
Nervi3n



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durungaldea. Apartamentua alokagai Vieux-Boucau herrian Boucanir egoitzan. Tel.: 675-71 93 63

LOKALAK

LOKALAK SALDU

Durungaldea. 75 metro koadroko bulego bat saltzen dut AMBOTO eraikinean. Bulegoa hornituta dago. Gainera, autobideko sarrera-irteeratik (Donostia-Bilbo) 200 metrora dago. Bulegoak errepidera ematen du. Prezio onean salgai. Tel.: 608875486

LOKALAK ERRENTAN HARTU

Durango. Lonja bat alokatzen da San Inazio auzunean, 9an. Intsonorizatuta eta ondo hornituta dago. Tel.: 615-75 00 39

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

LAN ESKARIAK OSTALARITZA

Jatetxeetan lan bila nabil. Lan bila nabil zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 629-40 51 91

LAN ESKARIAK ETXEO LANAK

Garbitzailea lan bila dabil. Lan bila nabil garbitzaile moduan, etxeak, lokalak, bulegoak... garbitzen. Garbitzaile titulua daukat. Tel.: 602-01 24 53

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Umeak zaintzen ditut. Irakaslea lan bila dabil umeak zaintzeko. Tel.: 692-71 66 19

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Baita margolari moduan ere. Tel.: 631-10 47 14

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. Baita sukaldari laguntzaile moduan ere. Kanpoko langilea, gauez, asteburuetan, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-63 24 16

Lan bila nabil. Gizonezkoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, etxeetan zein ospitalean. Baita baserrietan ardiak zaintzen ere. Barneko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.: 602-01 61 86

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 650-07 43 07

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentu eta erreferentziadun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko, barneko edo

asteburuetakoa langile moduan. Tel.: 632-07 50 13

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentu eta erreferentziadun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 632-10 22 32

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, asteburuetakoa edo ordukakoa langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 632-08 98 52

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Barneko, kanpoko, ordukakoa edo asteburuetakoa langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 631-55 81 08

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa edo plantxa egiten ere. Barneko, ordukakoa, gaueko edo asteburuetakoa langilea. Berehala lanean hasteko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Tel.: 663375155

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, ordukakoa, lanaldi osoan edo erdiko langile moduan lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentzia ditut. Tel.: 631-57 59 78
Tel.: 671-24 79 70

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 658-17 23 01

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, asteburuetakoa, ordukakoa, lanaldi osoan edo erdiko langilea. Eskarmentua daukat. Tel.: 632-57 16 20

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 688-49 53 88

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, asteburuetakoa edo ordukakoa langilea. Tel.: 612-46 03 60

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita atari edo sukaldeetako garbiketa lanetan ere. Tel.: 602-11 06 74

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka edo asteburuetakoa lan egiteko prest. Tel.: 643-13 01 20

Umeak eta nagusiak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lane-

tan ere. Orduka edo lanaldi osoan lan egiteko prest. Tel.: 632-07 50 13

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, asteburuetakoa edo ordukakoa langilea. Tel.: 631-60 94 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 643-13 01 35

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bil nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, gauez edo orduka lan egiteko prest. Eskarmentua daukat. Tel.: 691-14 17 39

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, gauez edo orduka lan egiteko prest. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 631-60 94 09

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko edo kanpoko langile moduan. Tel.: 632-10 22 32

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukakoa langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612-57 41 37

Arratsaldetarako lan bila. Esperientzia handiko eta erreferentziadun neska euskalduna arratsaldetarako lan bila. Umeak zaintzen, etxeko lanetan. Tel.: 688640604

Udarako lan bila. Uztail arratsaldetarako eta abuzturako ume-zaintzan lan bila nabil. Neska gaztea, euskalduna, esperientziaduna. Tel.: 688640604

Umeak eskolara eramane. Elorrioko emakume euskalduna eta esperientziaduna goizetan haurrak esnatu, gosalzten eman eta eskolara eramateko prest (Elorri bertan). Tel.: 658 759 264

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko langile moduan. Esperientzia daukat. Tel.: 663-98 37 78

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil barneko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 632-89 05 16

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Ordukakoa zein asteburuetakoa langilea. Tel.: 631-36 99 88

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen kanpoko langile moduan. Tel.: 658-17 23 01

Pertsona nagusiak zaintzen lan bila. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan bila nabil. Tel.: 634-04 10 87

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 643-09 68 45

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.: 666-80 84 79

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, lanaldi osoan, erdian, gauez, orduka edo asteburuetakoa lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 682-18 12 74

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo zerbitzari lanetan ere. Kanpoko langilea, asteburuetakoa, gauez, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 628-78 93 50

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Esperientziarekin eta paporekin. Tel.: 631-97 52 60

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. Barneko, ordukakoa edo gaueko langile arduratsua. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita sukaldari laguntzaile moduan ere. Eskarmentua dut eta berehala lanean hasteko prest nago. Kanpoko langilea, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 606-87 78 97

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 631-37 45 46

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. Kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-43 68 37

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukakoa langile moduan. Tel.: 688-44 22 90

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Ordukakoa langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 631-85 10 93

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil gauez pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 631-58 58 45

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 632725054

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 632-08 98 52

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 632-56 47 46

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko, ordukakoa edo gaueko langilea. Tel.: 602117084

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukakoa langilea. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 632-10 22 32

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Lanaldi erdian, orduka edo asteburuetakoa lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

Umeak zaintzeko prest. Kaixo, urte askotako esperientzia daukat ume zaintzan. Irailteik aurrera lan egiteko premia daukat. Durango. Interesatuta egon ezkerreko deitu esoz bidali mezua. Tel.: 644411174 edo irantzulau@gmail.com

LAN ESKARIAK IRAKASKUNTZA

Klase partikularrik ematen ditut. Irakaslea lan bila dabil klase partikularrik emateko (ikaslearen etxean) Tel.: 692-71 66 19

LAN ESKAINTZAK

LAN ESKAINTZAK OSTALARITZA


TABERNARI LAGUNTZAILEA. Zaldibarren tabernari laguntzailea behar dugu. Gutxi gorabeherako ordutegia Goizez (zapatua eta domeka): 12:30-15:00 Gauez (barikua eta zapatua): 19:30-23:00 interesatuak deitu: Tel.: 647268863

LAN ESKAINTZAK PERTSONAK ZAINDU

Sei hileko umea. Andra euskalduna behar da sei hileko ume bat zaintzeko (eta etxeko lanak egiteko nahi izanez gero). Abuztuaren amaieratik aurrera. Tel.: 605-97 49 83 (Eneko) Tel.: 667-86 51 06

Galdu/Aurkitu

Urkiolako Hiru Gurutzeetan betaurreko batzuk aurkitu ditugu, abadetxean daude.



Botikak

BARIKUA, 22 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	ASTELEHENA, 25 - 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
09:00-22:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 23 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 26 - 09:00-09:00
09:00-13:30	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	EGUAZTENA, 27 - 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurrondo 22 - DURANGO	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2 - Durango
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	09:00-22:00
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
JAIO-OLABARRIETA Errekakale 6 - ELORRIO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 28 - 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
09:00-22:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbite poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA TZA
DOMEKA, 24 - 09:00-09:00	
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA



Ekainaren 19an Ametsek urteak bete zituen. Zorionak etxekoan partez bihotz bihotzez. Ondo ibili zure hurrengo bidaiari eta ekarri Nepaleko energia onak.



Zorionak, maitia! Jarraitu horrelako alai eta terremotoa izaten! Mosu handi bat Laida, aitaxo eta amatxoren partez. Maite zaitugu!

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Iraia, atzo zazpi urte handi bete zenduzan! Zorionak, laztana etxeko danon partez! Mosu handi bat eta, bide batez, primerako oporrak pasatu!



Zorionak, familia, amak 20an urteak bete ditu, Iredek 26an beteko ditu eta Martinek 28an. Aitar partez zorionak eta muxu handi bat.



Zorionak, amatxo etxeko guztien partez. Musu handi bat Intza, Irati, Inhar eta aitaxon partez.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 23° / 12° ☀

ASTELEHENA ↓ 31° / 16° ☀

EGUAZTENA ↓ 29° / 18° ☁

DOMEKA ↓ 27° / 13° ☀

MARTITZENA ↓ 29° / 18° ☀

EGUENA ↓ 29° / 19° ☁

Egin zaitez Anbotoren Lagun eta atera etekina txartelari!



Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org • lagunak@anboto.org • 946 816 558

f Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak

"Arkitektuaren egoa premien aurretik jartzea da egin daitekeen okerrik handiena"

2017ko Euskal Arkitektura Gaztearen Peña Gantxegi Sarian zortzi finalisten artean geratu dira Eloi eta Edu Landia anaiak. Bide onetik doazen sentsazioa eman die aitortza horrek

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Egindako lana aitortzeak, eta, gainera, sektorekoen eskutik, satisfazioa eman die Landia anaiak. Lan bakoitza aukera bat dela eta aurretik bide luzea dutela argi dute. Besteak beste, Valentziako Lurraldeko Arkitektoen Elkargoa berrizteko lehiaketa irabazi zuten 2016an, beste lankide bigaz batera, eta, 2015ean, Donostiako Sarasola zubia aldatzeko lehiaketako 2. saria lortu zuten.

Arkitektoen familia batean sortu zarete. Zuen aitak Gerediaga ingurua diseinatu zuenean eztabaida piztu zen. Hasiberriak zarete, baina uste baino eztabaida gehiago sortzen du arkitekto baten lanak?

Edu: Zerbait berezia edo landua egitean, zaila da denei gustatzea. Orokorrean, berria denari beldurra zaio. Guk bidea dugu egiteko, oraindik ez dugu eztabaidarik eragin.

Eloi: Euskal Herrian ezjakintasuna handia da arkitekturari dagokionez. Ez dira baloratzen lan baten atzean dauden kontzeptuak, lortu gura dena. Gerediagakoa polemikoa izan zen, baina sortutako espazioa baloratu da gero, inguruari emandako bizia. Badaude dogma batzuk. "Horrek ez du ondo ematen" entzuteak ematen du ernegurik gehien. XXI. mendeko arkitektura XVIII.ekoaren berdina izan behar da?

Trenbidea lurperatuta, nola ikusten duzue Durangok izan duen eraldaketa?

Eloi: Trenbideko lurrak berrantolatzeke plan berezia beste garai batekoa da, higiezin burbuilaren garaikoa. Ez dakit orduan, baina gaur egun ez du inongo zentzurik star systemeko bost arkitekto diseinatutako 18 pisuko bost do-

rre eraikitzea, ia 2.000 etxe huts daudenean eta pertsonako eremu berdearen gutxieneko azalera betetzen ez denean. Gainera, geltoki berriaren kontzeptua ikusita, trenbideak

sortutako muga kendu da, baina Askatasun Etorbidetik datozen kaleen jarraitasuna apurtu da.

Zer proposatuko zenukete?

Eloi: Durango zatituz trenbideak

sortutako muga apurtzeko, —muga psikologikoa ere badena— alde biak josiko dituen plangintza bat: berdegune handi bat, hiriko bizkarrizurra izango

den bidegorri

s a r e a ...

Beti ere, durangarrei galdetuta.

B a i n a hirigintza etekin

e k o n o -



**Eloi (1989) eta Edu (1986)
Landia Ormaetxea
www.elearkitektura.com
Durango**

mikoen menpe jartzen denean...

Edu: Herrian planteamendu orokor batean txertatu beharko litzateke ingurua, premiei erantzunez. Luzera begirako plangintzak behar dira, ez koiuntura ekonomikoaren menpeko hamar urteko planak.

Ze arkitektura lan gustatzen zaizue?

Edu: Smiljam Radicen (Txile) lana.

Eloi: Peter Zumthor (Suitza) dugu erreferente askotan, eta Japoniako arkitektura modernizatu duten hainbat arkitekto. Arantzazuko eliza gustatzen zait asko. Euskal arte eta arkitektura garaikidearen manifestua iruditzen zait. Polemiko izan zen, euskal arkitekturaren berrinterpretazio bat egin zelako, inguru delikatuan; Vatikanoko ere betoa jarri zion Oteizaren apostulu obrari. Euskal Herriko arkitekturaren bidea horixe izan behar da.

Zein da egiten den okerrik handiena?

Edu: Arkitektuaren egoa premien aurretik jartzea, edo alde ekonomiko kalitatearen aurretik. Arkitektura lan bat ondo pentsatu behar da, eragina izango du-eta jendearengan. Gehiago hiri-diseinuetan.

Eloi: Bezeroa konposizioan, kontzeptuetan sartzen denean ere arazoak sortzen dira.

Atzerrian ibili zarete. Hango ukitua duzue?

Edu: Ikasketak Bartzelonan amaitu nituen. Kulturaren zati garrantzitsua da arkitektura han; diseinu eta tradizio arkitektonikoari dagokionez, oso urruti gaude. Txilera lan aukeren bila joan nintzen. Estudio gazte batean egon nintzen. Asko eragin zidan.

Eloi: Erroman arkitektura bizitzen eta baloratzen ikasi nuen. Orain 2.000 urtetik hona, arkitektura aldi guztiak ikusi daitezke, arkitekturak denboran nola iraun duen.

Zer diseinatuko zenukete?

Edu: Ez nuke jakingo esaten.

Eloi: Neure etxea. Ez da egongo norbera baino bezero hoberik edo txarragorik. Frank Gerhyren obrarik garrantzitsuenak ez da Guggenheim, bere etxea baino.

Lau-hortza

Segio Murillo Corzo
Ekonomialaria



Sukalki demografikoa


Anbotoko haitzaren azpian, Axpen, kokatutako jatetxe txiki bat munduko onenen artean sailkatu dabe sukaldaritzako adituek. Joan bedi lerrootatik, nire zorion mezua Etxebarri Erretegiko pertsonentzat!

Gure Herriarentzat irakasbide ederra dakar sari honek. Izan ere, bere txikitasunetik, nazioartean nabarmen agertzen dau gure sukaldaritzak. Gure aurrekoen lapikoan egosia, osagai onenez hornitua eta pertsonak eragindako sukalkia dogu Axpekoa. Txikiaren errezeta honetaz baliatu beharko dogu gaur, bihar, etzi eta etzidamu, Herri lez biziraungo badogu.

Guk ez daukagu handien indarra eta boterea, baina hareek falta daben malgutasunaz eta ausardiak jokatuz gero, begibistan dago, Etxebarrikoa eredu, nor edo nor izan gaitakezala nazioartean. Errezeta honetarako lehengai nagusia, pertsonak dira. Giza gaitasunak nahastu eta ura zana, saltsa bihurtzeko lana eta denbora baino ez dira behar.

Erronka demografikoa ere, aurrikuspina eta norabidea behar dau. Pertsonen jagokonean, aste honetan argitaratutako aurrikuspen demografikoen arabera, etorkinek mantenduko dabe euskal-lapikoa lehengaiz beteta, berriazko biztanleriak behera egingo daualako. Astitsu ibiltzea dogu gako, aurrikuspenez, sukalki demografikoa denbora luzez egosi beharrekoa da eta. Zentzu honetan, etorkinen bertakotzea herri-lan bihurtu behar dogu, Siriatik zein Oxfordetik etorriak izan.

Migrazioen nazioarteko saltsan, malgutasunez eta ausardiak jokatuz, Herri estrategia izan beharko genduke etorkinekiko jarrera abegitsua, etorkizuneko lapikokoa beratzen joan gaitazan.



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzeritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA: Ekainaren 15etik ekainaren 29ra.

Matrikula egiteko ordutegia:
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-13:00